

**innobasque**

berrikuntzaren  
euskal agentzia

agencia vasca  
de la innovación

2011/3 Txostena



**bazkide**-txostena

# Minutu batean gazte batek pentsatu zuen topaleku bat sortzea interneten beste ikasle batzuentzat. Eta Facebook deitu zuen.

Egizu historia 60 segundotan.  
Izena eman eta antola ezazu minutu horietako bat  
zeure erakundean.

Minutu bat berrikuntzarako emaitzetara, ekintzetara  
bideratutako berrikuntza-kulturaren sustapenerako  
ekimen bat da.

1. Erronka bat **identifikatu**.
2. **Ireki** mundura.
3. **Partekatu** ideiak.
4. **Hautatu** hoberena.
5. **Egizu posible. Ekin**.
6. **Eraldatu** mundua, zeure mundua.

[minutubatberrikuntzarako.com](http://minutubatberrikuntzarako.com)  
[unminutoparalainnovacion.com](http://unminutoparalainnovacion.com)





## Aurkibidea

<b>Berrikuntza hobea eta lasterragoa. <b>Guillermo Ulacia</b></b>	4 - 5
<b>2 minutu: txostenaren laburpena</b>	6 - 7
<b>I. Itun Publiko-Pribatua indartzea</b>	8 - 9
> Berrikuntza irekia politika gakoetan	
<b>II. Ingurunearekin lerrotatuz</b>	10 - 18
> Ekonomia Ekoberritzailea Dinamika	
> Gizarte EfiOsasungarria eta Bizi Kalitatea Dinamika	
> Enpresak Azeleratzearen Dinamika	
> Laugarren Sektorea Dinamika	
> Inguruneak: lankidetzak garatzen	
<b>III. Euskadi eraginkorrekiko konpromisoa</b>	19 - 21
> (INSIDI) I+G+b Sistemaren Nazioartekotzea	
> Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarearen Dinamizazioa	
> Diplomazia berritzailea	
> Innocampus	
<b>IV. Berrikuntza gizarteratzea</b>	22 - 24
> Bilbo Abiarazle	
> First Lego League Euskadi	
> I. Teknologia Kanpamendua	
> Nahierako informazio-zerbitzu berria	
> Innobasqueren Astearteak	
<b>ERANSKINAK</b>	25 - 29
“Lanera irekitako gogoak”, <b>Sonsoles Zubeldia</b>	
“Enpresa sozial berritzailea”, <b>José María Villate</b>	
“Hiriez ez dute ederrak izan behar soilik, bai eta erosoak ere”, <b>Nani Marquina</b> -ri elkarrizketa	
“Jasangarria ez da tokiko garapenari laguntzea bakarrik, esperientzia erreala lortzea da”, <b>María Rubio</b> -ri eta <b>Gerardo Amunarriz</b> -i elkarrizketa	
<b>Ezagutza partekatzen:</b>	30 - 34
Hiruhileko argitalpenak	
Jasotako argitalpenak	
Aurkezpenak	
<b>Erdiko orrialdeetan: <b>ITEM</b> design thinking</b>	



# Berrikuntza hobea eta lasterragoa

## Guillermo Ulacia

Innobasqueko Lehendakaria

Azken hilabeteotan mundu-jardueraren moderatzea gertatu da eta berreskuratzeari buruzko zalantzak gehitzea. Eta biak Europan bateratu dira indar handienarekin. Halako punturaino, non atzeraldiak mehatxatzaile planeatzen baitu eta enplegua sortzeko ikuspegiak moteldu egin baitira. Nahiz eta garbia dirudien berreskurapenaren ahultzeak, halaber sinetsirik egon behar dugu ez gaudela "diktat" baten mendean. Gaur eguneko egoera delikatuak neurri handi batean zailtasun - garaiek aukera apartak ere eskaintzen dituztelako konstante historikoa islatzen du. Birformulazio-aroak dira barruti askotan.

Baldin eta europar ikuspegitik ikasgai bat atera beharko bagenu kohesio gehiagorekin jokatu behar dugulakoa da, gaitasunak, estrategiak eta borondateak metatuz hazkuntza egokiaren bidea aktibatzeko. Nahiz eta irteera partikularrak bilatzeko iragarkiak ez diruditen oso esperantzagarriak. Arriskua begi-bistakoa da Europak ez badu irmotasunez jokatzeko eta gaur egun mundu-merkatuan duen kokaera garrantzitsua mantentzeko anbizioarekin, bigarren maila batera bazterturik gerra daiteke.

Europaz hitz egitean hain argi eta garbi ikusten dugun horrek gure herrialdean ere begi-bistakoa izan beharko luke. Ikuspen anbiziotsu batekin jaio ginen, Euskadi Europa erreferente bihurtzekoarekin berrikuntzan. Eta helburu horrek funtsezkoa izaten jarraitzen du, gehiago ere bai, zeren funtsezko galdera une hauetan hazkuntza nondik etorri den baita.

Gure zirkunstantziak kontuan izanik, oso tarte estua dago diru-politikarako eta bide fiskaletik ere abantaila handirik ez dago itzaroterik. Zer geratzen zaigu? Alde batetik epe ertain eta luzera lan egitea egiturak eraberritzetik (hezkuntzan batez ere), eta I+G-etik. Eta epe laburrean berrikuntzan sakontzea, erronka sozialak eta langabezia dauden pertsonen drama integratuz.

Innobasquetik berretsi egiten dugu geure burua, sinetsirik, sakondu egin behar dugula berrikuntzaren benetako kultura batean jarduera-barruti guztietan heda dadin, haien eskala desberdinetan, lurralde guztian barrena, eta konexio globalak izan ditzan (barrukanpoan). Lankidetzara publiko-pribatu eraginkor



batetik datorren kultura bat arrakasta-aukerak biderkatuko dituena, eskakizun argia bezain zorrotzarekin: berrikuntza gehiago egin behar dugu, gure lehiakideena baino hobea eta lasterragoa.

Ekonomia aurreratuak, oro har, eszenatoki berriak planteatzen ari dira, zailtasun handiak dituzten egokitzapenekin, baina eszenatoki berrietarako egokitzapenak berreskuratze-abiadura desberdinak sortzen dituelakoak berak aukera berrien ahalmena agerian jartzen du. Aukera horiek hazkuntza lasterragoko dinamika garatzen dituzten munduko ekonomiekin gehiago eta hobeto konektatzen jakitea eskatzen dute. Ekonomia globaleko jarraibideen birformulazio-une hauetan, berrikuntzaren papera bereziki kritikoa da aukera-leiho potentzialak irekitzeko. Baina sakoneraino baliatzeko, nazioartekotzean, eta jarduera berritzaileenei, sortzaileenei eta produktiboenei baliabideak berrizendatzeko, erronka globaletan irekitzen diren aukera berriekin konexio hobe bat ahalbidetuko digutenak.

Horri, Innobasquen, "Jarduera-domeinuak: ingurunearekin lerrokatzea" deitu diogu eta Lau Eraldatze Dinamikaren garapena jarri dugu abian, izan ere erronka globalekin lerrokatzen dira. Aldakuntza demografikoekin eta sozioekonomikoekin harremana duten erronkak, energia-ereduaren krisiarekin eta lehen gaien eta oinarriko baliabideen urritasunarekin, hala nola ura edo elikagaiak. Erronka horiek berrikuntzak bultzatzen dituzte eta horiek eskaera handiko eta hazkuntza potentzial handiko negozio-alorrak garatzen dituzte, irismen globalekoak baliabideen erabilera efizientean industrian, hirigintzaren jasangarritasunean, desberdintasunean, garraioan eta teknologia garbietan, zahartzean edo elikagaien eraldaketan.

Dinamika horiek partzuergoen bitartez aktibatzen dira, eta oinarrikoak gertatzen dira gure ehun sozio-ekonomikoaren tamaina eta dimentsioa kontuan hartuta. Partzuergo horiek aktore kritikoak dira lankidetzaren publiko-pribatuan bermatutako berrikuntza-eredu batean oinarritutako hazkuntzarako.

Hiruhileko Txosten hauen bitartez horren aurrerapenen berri ematen dugu, eta horrek haien protagonistak kontrastatu, hobetu eta balioan jartzeko aukera ematen digu. Izatez, Innobasque ekintza-eragileen sare horren sintesia da. Balioa sortzera bideratutako ekintza, Euskadiko proiektuak kanporantz bultzatzen dituena, eta aldi berean nazioarteko praktika hoberean sakontzen dituena.

Urtea, 2011ko laugarren hiruhilekoan ixteko prestatzen ari garelarik, aurrekoa baino biziagoa litekeena beharbada, iTEM irakurtzea gomendatzen dizuet, gaurtik aurrera hiruhileko hau lagunduko duen separata espezializatua, gorantz datozen gaiei buruzko ikuspegi aurreratua eskainiko duena. iTEMari hasiera emateko DESIGN THINKING edo "diseinu-pentsamenduari" ekin diogu, IDEOren lehendakaria den Tim Brown-en elkarriketa eskusiboa bat ere badakarrelarik.

# 2011ko 3<sup>o</sup> hiruhilekoa bi minututan



- > Hitzarmena sinatzea beste 3 enpresa sozial berritzaileekin
- > I. Mintegia ekoberrikuntzako arrakastakasuen erredaktore-ekipoak prestatzeko
- > Ecoinnovación Ekoberrikuntzako Aritu Batzordea Eratzea
- > "Diseinua berrikuntza-bektore bezala" jardunaldia antolatzea, Espainiar Diseinuaren Enpresen Elkartearekin (RED) lankidetzan.
- > Katilu abiaraztea
- > Innovalan aurkeztea



- > Bulkada Foroa ospatzea eta Batzorde Zuzendariari 2015 ZTBParren dokumentu zirriborroa aurkeztea
- > Intragesti3n, Art Panel eta Dokudearekin kontraste-fasea hasi da
- > Manunet webgune berria abiarazi da
- > Doktoregoko 30 beka ZTBESko zentroetan garatzeko
- > 3 erakunde berri txertatu dira Adimen Emozionalaren Partzuergoan eta dagoeneko baditu 94 erakunde eta 150 pertsona
- > "The Ten Million Project"-en aurkezpena



- > Valoniako (Belgika) Erregio Gobernuaren ordezkari baten bisita
- > **Francisco Manrique, Bogotá Región Connect-eko lehendakariaren bisita**
- > "Berrikuntza hizki larriz" gaiaren inguruan Extremadurako Teknologia Parkeak antolatutako udako ikastaroan parte-hartzea
- > Hiruhileko honetan guztira mobilizatutako pertsonen kopurua 1.728koa izan da
- > **"Enpresa sozial berritzailea" argitalpenaren aurkezpena eta jendarteratzea**



- > 35 ekipo izena emanda First Lego League Euskadin (%25 gehiago 2010ean baino)
- > Presentzia hazten ari gara Gizarte Sareetan:
  - 3.780 jarraitzaile twitterren
  - Open ideiak: 4.340 persona erregistratu
- > **2011an zehar metatutako Innobasqueren inpaktu publikoaren balioa 3,7 M€koa da**
- > **Strelia I. Teknologia Kanpamenduarekin lankidetzatza**
- > Argitalpen berri 1 editatu da

# I. Itun Publiko-Pribatua indartzea

## Zer da Itun Publiko-Pribatua?

Euskadiren Eraldaketa-prozesurako ekarpen berezietako bat da nortasun ahaltsu eta bakarra ezartzen dio Innobasqueri.

Plataforma publiko-privatua gure herrialdearen eraldaketa dinamizatu eta azeleratzeko berezko lursaila da. Sare publiko-privatuaren ahalmena ahalik eta gehien garatzea behar bat da gure gizarterako, zeren eta aukera ematen baitu partaidetzaren eta eraldatzearekin zerikusia duten proiektu eta ekimen desberdinetan dabilzan eragile guztien ikuspen partekatu baten eroale izateko. Gure osaerarengatik, Innobasque topaleku egokia da ekimenak garatzeko, zeinek zuzenean edo zeharka sektore desberdinetako gizarte-eragileak inplikatzeko baititu, lan-barrutietan adituak diren pertsonak, eta proiektuen lider diren erakundeak.

## IKASKUNTZA BIZITZAN ZEHAR EUROPAR PROIEKTUA

Innobasquek bazkide bezala parte hartzen du LABS2LEARN (Learning Labs for the Transfer of Lifelong Learning Strategies) proiektuan, Ikaskuntza Iraunkorreko europar programan txertaturik Hezkuntzaren Europa Lankidetzari laguntze-lerroaren barruan.

LABS2LEARNek diagnosi erkatua eta trukea sustatzen ditu, nola ikaskuntza iraunkor berritzaileko esperientziak hala jardun onak, arrakasta eta faktore kritiko nagusiak identifikatu, testatu eta Europa

## Berrikuntza irekia politika gakoetan



## ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA PLANA

2015 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren dokumentu zirriborroa Batzorde Zuzendariarekin kontrastea buruturik, eragile, bai publikoen eta bai pribatuen, azken ekarpenak txertatu direlarik. Batzordeari, plan berriaren helburuak eta arkitektura estrategikoa aurkezteaz gainera, hari dagozkion aurrekontu-proiektzioak ere aurkeztu zitzaizkion.

Plan berriaren gaurko egoera irailaren 23an aurkeztu zitzaion Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko 100 eragile baino gehiagori. Foroan 2015 ZTBP berriaren ezaugarri nagusiak adierazi ziren: sailarteko

eta erakundearteko plana izatea:

- Haren azken helburua hazkuntza ekonomikoa, enplegua eta Euskadiko ongizatea biziberritzea da zientzia, teknologia eta berrikuntzari balio erantsi handiagoa sortuko duten jarduerak bultzatuz
  - Fokuratze-eremu batzuk ezartzea erronka globalei aurre egiteko balioko dutenak, merkatuen (zahartzea, energia, garraioa eta mugikortasuna, mundu digitala eta zientziaren industria) eta zehar-gaitasunen (bio, nano eta fabrikazio aurreratua) artena banatuak
  - Gobernantza berri baten definizioa, zehar-izaerako prozesu kritikoen kudeaketan oinarritua zientzia, teknologia eta gizarte-berrikuntzaren 3 barrutietan
  - 9 helburu eta 22 jarduera-lerro estrategikoko arkitektura bat ezartzea, haiei dagozkien jarraipen-adierazleekin
  - Plan berriari aurrekontu-zuzkidura anbiziotsu bat esleitzea, 2015ean Ikerketan eta Garapenean gure BPGaren %3 inbertitzeko konpromisoarekin bat datorrena, aurrekontu-hazkuntzak Berrikuntzako Estrategia Funtzaren bitartez bideratuz
- Bulkada Foroa aurkeztean jasotako iradokizunetatik, gaur egun 2015 ZTBParen dokumentuaren behin betiko bertsioa lantzen ari dira, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Kontseiluari helarazteko. [BEC - Barakaldo, 2011ko irailaren 23]

mailan transferitzeko.

Apirilaren 6 eta 7an egin zen Bilbon proiektuaren nazioz gaindiko lehen topaketa, esperientzia eta jardun onak sustatze- eta trukatzeko-prozesuarekin jarraituz, eta horien artean Heziguneren kasua aztertu da. Ekimen hori Vitoria-Gasteizko Hiri Zaharrean Sartu Arabak garatuak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailaren Ikaskuntza Iraunkorreko Zuzendaritzaren laguntza izan du. [GIZARTE BERRIKUNTZA]



## BERRIKUNTZA ETA HIRITARREN PARTAIDETZA TOKIKO POLITIKA PUBLIKOETAN

2011ko 2º hiruhilekoan, Innobasquek "Berrikuntza eta hiritarren partaidetza tokiko politika publikoetan" ikerketa abian jarri zuen, horretarako UPV/EHUaren lankidetzan izan zuelarik. Abiapuntua Euskal Herrian burututako prozesuak analizatzea izan da, asmatzeak eta, bai eta "akatsak", hesiak, oztopoak edo zailtasunak ere, egindako esperientzietatik ikasteko. Ikerketa, hiritarren partaidetzaz bigarren belaunaldiko gida praktikoa bat lantzerantz zuzendua, bere batian Dakar iturri desberdinekiko analisi-metodologia bat, langileria teknikoa, hiritargoa eta profesional edo prozesuaren beraren dinamizatzaileak. Erabiltzen ari diren eredu analitikoak Eudeleko hiritar-partaidetzaren lantaldearekin eta Innobasqueko Gobernantza I-Taldearekin kontrastatu da. [GIZARTE BERRIKUNTZA]



**ECO-EUSKADI.** 2020 EkoEuskadi estrategia garatzen lankide izan diren pertsonen eta erakundeen ezagutza-ekitaldia [2011ko irailaren 22]

## IMMIGRAZIOAREN ALDEKO GIZARTE ITUNA

Immigrazioaren fenomenoak Euskadientzat planteatzen dituen erronka eta aukerei buruzko diagnosi partekatua bat ezartzeko lanak abiarazi dira, Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Zuzendaritzarekiko lankidetzan.

Lortu nahi den helburua ikuspen zabalkiro partekatua da, bai erakundeen aldetik eta bai gizartearen aldetik, oro har, pertsona immigratzaileekiko integrazio-eredu baten gainean hiritar-eskubideak, kulturen arteko bizikidetzak eta gizarte-koheresia bermatuko dituen. Hitz batean, integrazio-politika baten printzipioak eta haren tresna nagusiak bere baitan hartuko dituen.

Proiektu hori integrazio-gaia politika publikoen gobernantza-eredu parte-hartzaile

### Irekitako lan-lerroak

- 2015 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana
- Bizitzan Zeharreko Ikaskuntza Lege baterantz Euskadin
- Gazteriaren Partaidetzako Plan Pilotua
- Lehendakariaren Kontseilu Aholku-emailea
- Enplegu Estrategia
- XXI. Mendeko Udalerriak
- EkoEuskadi 2020
- Immigrazioaren aldeko Gizarte Ituna
- Landa-barrutiko emakumeak
- Berrikuntza eta hiritarren partaidetza politika publikoetan
- E-Inklusioa

baten lerro nagusien garapenean txertatzen da. [GIZARTE BERRIKUNTZA]

### EMAITZAK

- Batzorde Zuzendariari 2015 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren zirriborroa eman zaio
- Bulkada Foroa ospatu da

### ALBISTE IZANGO DA

- XXI. Udalerri Ikuspen Tailerraren ondorioen dokumentua aurkeztea
- Innobasqueko Batzorde Zuzendariak gizarte berritzaile baterako balioei buruz egindako inkestaren emaitzak aurkeztea
- Gobernu Kontseiluari eta Eusko Legebiltzarrari Ikaskuntza Iraunkorren Legea aurkeztea onar dezan
- COEDUCA Proiektua, Neurohezkuntzari buruzko azterlanaren jendaurreko aurkezpena [2011ko urriaren 13]
- Landako Emakumei buruzko Lan-jardunaldia [Ordizia, 2011ko urriaren 15]
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Kontseiluari 2015 ZTBaren aurkezpena [2011ko azaroaren 22]
- Gipuzkoa Berritzen eta 2º Berritzaileen Topaketaren Batzarra [Donostia, 2011ko azaroaren 29]
- Euskadiko Immigrazioaren aldeko Gizarte Itunaren aurkezte-ekitaldia [abendua 2011ko]



# II. Ingurunearekin lerrokatuz - LAE

Ekintza Estrategikoko  
Lerroak 2010-2012

## Zer dira eraldatze-dinamikak?

Gure erronkak gizarte aurreratu guztiek dituztenak dira garapen eta hazkuntza jasangarri baten eredurantz beren geroa bideratzen dutelarik, bere industriaren ekarpena lagundu eta babesteko nahiarekiko koherenteak, lehiakortasuna eta munduan zehar beren presentzia gehituz. Helburu orokor hori ezartzeko erabiltzen den bidea berrikuntzatik igarotzen da, nola Euskadin hala munduaren


gainerakoan, zeren eta berrikuntzan egon baitaitezke prozesu horren gakoak. Bide horretan, Eraldaketa ortmugan dela, euskal sare berritzailea hedatu eta sektore gakoei ezartzeko lanean ari gara.

Aktibatze-helburu horrekin 5 makro-joera nagusirekin, Innobasquek hasieratik landu dituen 5 eremurekin lerrokatzen gara:

- > Garapen soziala
- > Garapen ekonomikoa
- > Jasangarritasuna

- > Osasuna eta bizi-kalitatea
- > Agertoki berriak

5 eremu horiek gurutzatzearen gaur eguneko emaitzak lau eraldatze-dinamika handi definitzeko aukera eman digu, erabakigarriak jotzen ditugunak eta 2010/2011an gure ahaleginak eskaintzen dizkiegunak: Ekonomia Ekoberritzailea, Enpresak Azeleraztea, Laugarren Sektorearen Garapena eta Nazioartekotzea (ekonomia soziala), eta Gizarte Efiosasungarria eta Bizi Kalitatea.





# DINAMIKA Ekonomia EKOBERRITZAILEA

## Dinamikaren xedeak

- > Lidergo Teknologiko Lehiakorreko marka bat sortzea
- > Oreka bilatzea hazkunde ekonomikoa - enplegua eta ingurumen-eraginaren (garapen jasangarriaren) artean
- > Inbertitutako kapitalaren gain marjinak eta errentagarritasuna hobetzea

## ERAIKUNTZA JASANGARRIA

- > Sektoreko eragileen gaitasunen analisia amaitzea, Euskadin eraikuntza jasangarriko aurrera egiteko beharrezko produktu eta zerbitzuen inguruan dagoen eskaintza ezagutzeko inkesta gutxi gorabehera 400 eragilek bete dutelarik
- > Erreferentziako Europa herrialdeetan eraikuntza jasangarria garatzen lagundu duten jardun onen analisia burutzea
- > Innobasquek bere partaidetza hasi du Eraikune Euskadiko Eraikuntza Klusterreko Jasangarritasun Batzordean

## EKO-FINANTZAZIOA - CLEANTECH DAY

- > Euskadiko lehen Cleantech Day diseinatu eta prestatu, Deustuko Unibertsitatearen lankidetzarekin. Ekimen horren aterkipean, 2 jardunaldik bat egiten dute: "Europe Cleantech Advisory Board Meeting", Innobasquek eta Cleantech Group-ek antolatua, Deloitte-ren lankidetzarekin, eta "Spain Cleantech Open", Ideien Lehiaketa Global nazioartekoa teknologia garbiei buruz Deustuko Unibertsitateak eta Opinnok antolatua
- > "Europe Cleantech Advisory Board Meeting"-en barruan 16 inbertitzaile, funts eta nazioarte-mailako prestigioa duten konpainiak 100 eta 300 milioi euroekin bakoitza, teknologia berrietan proiektu berritzaileak eta hazkuntza globaleko ahalmenak dituzten enpresen hautespen bat ezagutzera etorriko dira inbertsioak egiteko. Horretarako, Innobasquek cleantech sektorean enpresa-proiektuen atzemate-prozesu bat garatu du eta bertara guztira 16 hautagaitza aurkeztu dira
- > Proiektu horiek balioesteko Ekoberrikuntzako Adituen Batzordea eratu da honako hauek eratuta: Iberdrola, Gamesa, Repsol, Mondragon Korporazioa, IDOM, Ormazabal Corporate Technology, CAF, ZIV, Berrikuntzako Ibermática Institutua, B+I, Tecnalia, IK4 Research Alliance eta Deloitte



## EHAE-AN EKOBERRIKUNTZA SUSTATZEKO EKINTZAK

- > Arrakasta-kasuak ekoberrikuntzan Euskadin:
  - Unibertsitate arteko proiektua, zeinean UPV/EHUko 19 ikertzaileak, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea lankide diren Euskadiko "Ekoberrikuntza hiri-soluzioetan" jardunak eta proiektuak garatzeari buruzko azterlan tematiko bat garatzen. Lankidetzari hori errazteko arrakasta-kasuetan espero diren helburu eta emaitzen inguruan ekipoak prestatzeko mintegi bat burutu da [2011ko irailaren 27]
  - Prozesu horretan 4 kasu identifikatu dira garatzeko:
    - 1 Kasua: CIE Automotive, EKONOR, eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Kalitateko Zuzendaritzaren arteko lankidetzari

- 2 Kasua: Eroski
- 3 Kasua: ZIV
- 4 Kasua: Fagor
- > Inbertsio pribatuak euskal ekonomian izan duen inpaktuaren analisia. Halaber, proiektuaren barruan aztertu egin dira nazioarte-mailako informazio-iturriak I+G-b txosteneko metodologia eta egingo diren kalkuluak finkatzeko
- > Antolatzailerik eta partaiderik izan da Espainiar Diseinuko Enpresen Elkartearekin lankidetzan (RED), "Diseinua berrikuntza-bektore bezala" jardunaldian, zeinean Bilbok laguntza publikoa jaso duen 2014 Diseinuaren Mundu Hiriburu izateko haren hautagaitzarako [2011ko uztailaren 21]

### EMAITZAK

- Ekoberrikuntzako Aditu Batzordea eratzea [2011ko irailaren 27]
- I. Mintegia ekipoak prestatzeko berrikuntzako arrakasta-kasuetan itzarondako helburuen eta emaitzen inguruan [2011ko irailaren 27]
- "Diseinua berrikuntza-bektore bezala" jardunaldia antolatzea, Espainiar Diseinuko Enpresen Elkartearekin lankidetzan (RED) [2011ko uztailaren 21]

### ALBISTE IZANGO DA

- I. Cleantech Day burutzea, Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan [2011ko urriaren 3-4]
- Euskadiko eraikuntza jasangarriaren sektoreari buruzko inkestaren emaitza-txostena.
- II. Prestakuntza-mintegia berrikuntzaren azterlan tematikoa lantzeko [2011ko urriaren 7]



# GIZARTE EFIOSASUNGARRIA ETA BIZI KALITATEA


**DINAMIKA**


## Zer da?

Ekintza aldi bereko eta koordinatua 4 jarduera-eremutan (elikadura, zahartze aktibo eta osasungarria, kronikotasuna, eta osasun-teknologiaren sektorearen garapena), osasunaren balio-konstelazioaren parterik handiena aktibatzen duena, eta era esanguratsuan 3 helburu lortzen aurrera egitea ahalbidetzen duena:

- > gehiago eta hobeto bizi
- > balio ekonomikoa sortu ingurunean
- > gizarteko osasun-sistemaren jasangarritasunari lagundu

## INNOBASQUEREN PAPERERA

- > Inguruneak sustatu, beraietan antolaera publiko eta pribatuak, pertsonak eta erkidegoak, lankide izan daitezten ekimen berritzaileak garatu eta ezartzen elkarlanean
- > Mugen artean eta haietan zehar lan egin osasunaren balio-konstelazioa itxuratzen duten eragile desberdinen artean
- > Ikuspegi desberdinak dituzten eragileak hurbiltzea sustatu, ideia eta planteamendu berriak atzeman eta haiek bizkortzea abiarazteko



## ELIKADURA ETA BIZI-OHITURAK

### Jardute-barrutia zabaltzea

Gizarte Efiosasungarriaren dinamika abiarazi zenetik, estrategiaren zutabeetako bat Osasuna sustatzearekin zerikusia duten alorretan lehentasunezko jarduera izan da, bizi-estilo edo bizi-ohituren faktore banakoen planteamendu batetik, eta horregatik hautatu zen elikadura lehentasunezko Alor bezala. Hala ere, ondorio bat atera da: osasunaren gaineko inpaktua esponentzialki hazten dela elikadurari jarduera fisikoa eta emozio-kudeaketarekin zerikusia duten ohiturak gehitzen badizkiogu.

Ildo horretatik, Jarduera Fisiko eta Osasun Planeko Euskal Planean Innobasquek parte hartzeko oinarriak ezartzen ari dira, biak Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saila lider dutela. Jarduera hori 4 jarduerabarrutiek elkargune argiak dituztela ulertzetik sortzen da.

### KATILU abiaraztea

Lankidetzaz hitzarmen bat finkatu da Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Antolaketa, Nekazaritza eta Arrantzako Sailekin, Itsas-mendikoi, Kalitatea eta Neikerrekin "KATILU" aktibatuzko.

"KATILU" nekazaritzako elikagaien balio-kateko eragile-nodo bat da, jardueraren beste sektore batzuetako eta lurraldearen garapen jasangarriari atxikitako eragileen osagarriak diren eragileei irekia. Haren helburua sormena eta berrikuntza sustatzea da sektorearen lehiakortasuna eta lurraldearen garapena hobetzeko.


"Gizarte osasuntsu eta herrialde osasuntsu baterako elikadura" helburuaren planteamendu zabalagoarekin, gai horretan interesa duten

eragileak txertatu dira, Elikadura Klusterra nabarmentzen delarik, izan ere beste bultzatzaile handietako bat gehiago bihurtuko da Basque Culinary Center, Azti, Eroski, Bilboko Merkataritza Ganbera, elikadura freskoko gremio desberdinen Bizkaiko Elkar-teak, eta abarrekin batuz.

Elikaduratik ohitura osasungarrietaraino jarduera-fokua areagotzeko, gOsasun bultzatzen da, "Bizi-ohitura osasungarriago batzuen aldeko mugimendua", Adimen Emozionalaren Partzuegoarekin batera. gOsasun helburua eragileak mobilizatzea da bizi-ohitura osasungarriagoak hartzea sustatzeko edozein barrutitan, lan-eremua, aisia, lurraldea barne direla.







## ZAHARTZE AKTIBOA

Innobasquek Bioef eta Deustuko Unibertsitatearekin batera proposamen bat aurkeztu du Europa proiektu baterako 7<sup>o</sup> Esparru Programaren barruan, zehatz esateko "Social innovation for active and healthy ageing" sailean.

"Long Lasting Lifestyle Changes" (3LC) aurkeztutako proiektuak eredu bat definitzen du, aldaketa jasangarria sustatzen duena era aktibo eta osasuntsuan adineko izatera iristea errazten duten bizi-estiloetarantz.

Proiektu honek bi eragile suediar ditu (Karolinska Institutet Health Management AB eta Svensson & Svensson AB), gainera eragile daniar bat (Midtlab Central Denmark lab for Innovative Experiments) eta beste norvegiar bat (Norut Northern Research Institute).

## KRONIKOTASUNA

Innobasque Kronikoen Sarea- Kronet "Osasuna 2.0: Pazienteak eta profesionalak 2.0 Webgunean" aurkeztu zuen udako ikastaroan, Oberrik eta Deusto Business School-el antolatutik. Ikastaroak 2 eguneko iraupena izan zuen eta 150 espezialista bertaratu ziren.

Kronet Innobasquek kronikotasunaren erronkari ekiteko Estrategiaren garapenera laguntzeko dituen proiektuetako lehena da. [2011ko uztailaren 5-6]

## OSASUN TEKNOLOGIEN GARAPEN SEKTORIALA

Goierriko eskualdean hasten da Euskal Herriko ehun industrial ezaugarritzeko aurreikusitako metodologiaren ezarpena sentiberatze-saioetarako oinarri bezala (4c guneak) industria tradizionala osasun-teknologiaren sektore-rantz desberdintzeko.

Eskualdeko gaitasunen analisisan oinarritzen da ezaugarritze hori, gaitasunaz teknologia, aktiboa eta emaitza konbinatzea ulertzen delarik, eta azpimarratzea eginez haien identifikazioa konbinatzearen beharrez haien kuantifikazioan eta/edo kualifikazioan.



## EMAITZAK

- Ingurumen, Lurralde Antolaketa, Nekazaritza eta Arrantza Saileko enprekin hitzarmena
- Katilu abiaraztea


## ALBISTE IZANGO DA

- Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoko Euskal Planean lankidetzatza [2011ko urria]
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Planean partaidetzatza
- "Bizi-ohitura osasungarriago batzuen aldeko mugimendua" abiaraztea [2011ko abendua]
- Basque Culinary Center-ekin lankidetzatza-hitzarmena "Gizarte Osasuntsu eta Herrialde Osasuntsurako Elikadura" sustatzeko
- Elikadura Klusterrarekin lankidetzatza-hitzarmena "Gizarte Osasuntsu eta Herrialde Osasuntsurako Elikadura" sustatzeko
- Proiektu berriak identifikatzea Eusko Jaurlaritzako Osasuna eta Kontsumoa Sailaren "Euskadin kronikotasunaren erronkari ekiteko Estrategia" ezartzen lankidetzatza aritzeko proiektu berrien identifikazioan
- Lankidetzatza-hitzarmenak eskualde-garapenerako agentziekin osasun-teknologiaren sektorea garatzeko

# ENPRESAK AZELERATZEA DINAMIKA



*Ekintzailtza Indartze-dinamikak aldatu egiten du bere izendapena Enpresak Azeleratze-dinamikara, zeren eta hobeki deskribatzen baitu abian dagoen proiektua, EIPG potentzialak azeleratzea*



## ABIAN DAUDEN PROIEKTUEN EGOERA

### I. Faseko enpresak: azeleratze-prozesua

> **Hib:** azeleratze-prozesua jarraitzea, Ulma Eraikuntza eta Lantegi Batuak-ekin dagoeneko itxitako bi hitzarmenekin. Gainera, topaketak egin dira kanpo-aholkularitza baten egindako gogoeta-prozesua burutzeko. Eraikuntza modularreko prototipo berria, dagoeneko sortua, azaroan Bartelonan izango den Expoquimia Azokan aurkeztuko da

### Kontraste-taldeak baliozkotutako enpresak

> **Unicorp:** bere estrategiaren barruan, irabazi-asmorik gabeko elkarte bat sortuko du enpresaren xedeari lotua

> **Kera-Coat:** aurrera doaz aldebiko kontaktuak hodiaren sektorearekin eta produktu bat baino gehiago industrializazio-prozesuan daude

> **Documents:** Orzarekin (enpresetan partaidetzak hartzen aritzen den zuzeneko inbertsioko erakundea) harremanetan jarri da. Azpimarratzekoa Seed Capital Bizkaia parte hartuko duela enpresaren kapitalean

### Prozesuaren hasiera-faseko enpresak

> **Intragestión**

> **Art-Panel:** negozio-planaren analisisefasean dago kanpo aholkularitza batekin

## VIRTUALWARE KASUA

Virtualware soluzio teknologikoak sortzen espezializatutako konpainia bat da, bideojokoak eta errealtate birtualeko teknologia multimediantan oinarritua, bere ahaleginak hiru lerro nagusitatik bideratzen dituena: 3D eta 2D aplikazio interaktiboak, "serious games", eta simulagailuak. Innobasqueko enpresen azeleratze-prozesuan sartu zenetik, honako pauso hauek eman dira:

- Kontraste-taldearen deialdia, barruti desberdinetako antolaerak osatua (hezkuntza, osasuna, teknologia eta industria), Innobasqueren sarekoa, merkatu azterketa bat egin behar zela ondorioztatu zuena

Virtualware gaur egun honetan ari da:

- > Bere ahaleginak negozio-unitateetara birbideratzen kulturaren (ondarea eta turismoa), hezkuntza eta prestakuntza, osasuna eta laborategiak (I+G+b)
- > Produktu berritzaileak garatzen murgildua osasun sektorerako: VirtualRet eta eMotion (azken hori, Deustuko Unibertsitatearekin lan-kidetzan)
- > Hib-ekin batera Europa proiektu bat garatzen unibertsitate-laborategien sektorerako
- > Training produktu bat garatze-prozesuan Iberdrola enpresarekin
- > Orza bezalako inbertitzaile talde handiekin, eta Silicon Valleyko Chris Shipley bezalako nazioarteko adituekin harremanetan
- > Bere sarrera hitzartzen enpresak azeleratzearen bigarren fasean

### EMAITZAK

- Hasita dago kontraste-fasea Intragestión, Art Panel eta Dokudearekin
- Seed Capital Bizkaia partaidetza, Documenta-en kapitalean



## Zer ekarpen egin dio Innobasquek Virtualwareri sustatzailearen ikuspuntutik?

"Innobasquek aukera eman digu Virtualware proiektua kontrastatzeko eta gure negozioarako gakoak diren aditu eta profesionalen ikuspenarekin indartzeko aukera eman digu.

Hazkuntzako lehen aldi baten ondoren, azeleratzea hil edo bizikoa da kanpoko merkatuetara iristeko eta produktu berritzaileak garatzeko, eta Innobasque gakoak da hori lortzeko."

**Unai Extremo,**  
Virtualwareren sustatzailea

### ALBISTE IZANGO DA

- Hib-en eraikuntza modularreko prototipo berriarren aurkezpena Expoquimiako Azokan [Barcelona, 2011ko azarora]
- Innobasqueren Asteartea "Enpresa-azeleratzea: nola bihurtu presentzia globaleko enpresa berritzaile" [Idom - Bilbo, 2011ko urriaren 18]



# LAUGARREN SEKTOREA DINAMIKA

## Zer da?

> Dinamika honen helburua enpresa-jarduera xede sozialekin garatzea da, lan globaleko esparru bat eskainiz gaur egun sail horretan ari diren antolaeren ahalmenak indartuko dituen, lan globaleko ekimen berriak abian jartzearekin, eta haien nazioartekotzea sustatuz

## INNOVALAN

Innovalanen aurkezpena, elkarleen eta erakundeen baterako ekimena. Nola sektore publikoan hala pribatuan eta zenbait GKEtan, zeinek lan egiten baitute buru-gaixotasuna duten pertsonak gizartearen eta lanean txertatzen. Ekitaldian 100 sektore-eragilek baino gehiagok parte hartu zuten.

Innovalan negozio-aukera berrien bilaketa indartzen duen proiektu bat da, buruko gaixotasuna duten pertsonentzako enplegua sortuko duten erantzun berritzaileen bitartez. [Zamudio, 2011ko irailaren 30]



## GIZARTE EKINTZAILERIA

Sorkidetzeta prozesuaren esparru-hitzarmenaren sinaketa 3 enpresa sozial berritzaileekin:

> **Dokudea** spin-off bat da, Lantegi Batuak-en zuzeneko marketing-unitatekoa, lan-aukerak sortzen dituen ezintasunak dituzten pertsonentzat prestakuntzaren eta teknologia berrien kudeaketaren bitartez

- > **Zaintzalan**, ekimen sozialeko kooperatiba bat, Caritasek sustatua, zeinek ematen baitie aukera enplegu duin baterako hurbiltasun-zerbitzuko sektorean jadanik lanean ari ziren pertsonari. Zaintzalan indartzen ari da bere komunikazio- eta komertzializatzeko-estrategia, nola on-line hala beste bitarteko batzuetan
- > **Vívelo Travel** turismo-sektoreko enpresa bat da helmuga bezala Afrika aukeratzeko bidaiariei ostuak eta tokiko ekintzaileek kudeatutako jarduerak. Gaur egun bere proiektua kontrastatzen ari da Innobasqueren sareko adituekin

## ENPRESA BERRIKUNTZA SOZIALEKO RADARRA

Enpresa Berrikuntza Soziala enpresak %100ean jasagarriak diren negozioetarantz eraldatzea bilatzen ari da, berrikuntza aldaketarako tresna bezala erabiliz.

Innobasquek, Sinplerekin batera, "Enpresa Berrikuntza Sozialaren Radarra" lan-jardunaldia antolatu zuen tresna baten diseinurako, zeinek emango baitu aukera negozioaren lehiakortasunean eragina duten berrikuntza sozialaren neurriak identifikatzeko, alderdi operatiboak ez ezik estrategikoak ere bere baitan hartzeko.

Izaera mugatua izan zuen ekitaldian Erantzukizun Sozial, Ingurumen eta Berrikuntzako 10 erakunde bazkideetako arduradunek parte hartu zuten: Ados, Artech, BBK, Tubacex, CEDYC, Construcciones Zabalandi, Gipuzkoako Foru Aldundia, Gamesa, ITP, Lantegi Batuak, NEXTEL, S.S.I. S. Coop. eta Tubacex. [Zamudio, 2011ko irailaren 14]

## EMAITZAK

- Enpresa Berrikuntza Sozialari buruzko lan-jardunaldia [Zamudio, 2011ko irailaren 14]
- Hitzarmen-sinaketa 3 enpresa sozial berritzaileekin [2011ko irailaren 27]
- Innovalan ekimenaren aurkezpena [Zamudio, 2011ko irailaren 30]

## ALBISTE IZANGO DA

- > ESSen jarduera-lerroaren aurkezpena [2011ko azaroa]
- > EHAEko erakundeen ESSeko erakundeentzako ezarpeneko esparru metodologikoaren eta azterlanaren ondorioen aurkezpena [2011ko abendua]



# INGURUNEAK: lankidetzak garatuz

## Zer da?

> Berrikuntza pertsonengan dago, eta horiek garatzen dituzten gaitasunak dira gizartearen balio nagusia. Berrikuntza, beraz, prozesu hedatu bat da, enpresetan, mota guztietako erakundeetan, instituzio publiko eta pribatuetan, kulturen, hirien bizitzan... Gure lanaren atal oinarritzako bat pertsonen (gizartearen) gaitasunak garatzen laguntzea da bultzatzen ari garen Eraldaketa oinarri erreal eta iraunkorrak izan ditzan. Ildo horretatik, izaera desberdineko ekimenak garatzen ditugu aurrez deskribatutako dinamikak osatzen dituztenak

## Lerro Irekiak

- > Hizkuntzen Industria
- > Kudeaketa aurreratuko kasuak
- > Adimen Emozionalaren Partzuergoa
- > Itaca Foroa
- > Esp@ Sarea
- > Openideiak

**Idea-merkatua** Berrikuntza Irekiko gune bat da Openideiak-en barruan, zeinen helburua baita eragile batzuen beharra kontaktuan jartzea, haien erronkei soluzioak bilatzea, haiek konpontzeko ideiak eskaintzen dituzten Erkidegoko pertsonen ezagutza eta sormenarekin.

**Zer da erronka saridun bat?** Izenak adierazten duen bezala, erronka saridun bat botatzen duenak saria eskaintzen du erronkaren soluzio hoberenarentzat. Pertsonak edo erakundeek egin dezakete erronka-jotzailearen papera (erronkak proposatu), bai eta konpontzaile-papera ere (soluzioak eskaini) beste batzuek proposatutako erronkei.

## OPENIDEIAK

Lankidetzak eta partaidetza-tresna. Erkidego honek plataforma dinamiko bat eskaintzen du erakunde, publiko eta pribatu guztien eskura ezartzen duena berrikuntza irekia sustatzeko, erronka mota guztiei aplikatua, zeinetan gizarte eta pertsona bezala garapen ekonomikoa, soziala eta gizatiarrarekin zerikusia duten ekimenak gara ditzagun (ingurumenekoak, enpresakoak, teknologikoak, sozialak, kulturakoak). Erkidegoak aukera ematen du berrikuntza irekiko proposamenak dinamizatzeke erakunde guztietan, izan ere tresna eskuragarria da gure bazkide guztientzat eta ekintza estrategikoko lerro guztietan hedatzen da. [www.openideiak.com](http://www.openideiak.com)

## ERRONKA SARIDUNAK

2 erronka nazional berri eta 2 sari hedatu dira:

- > **"2011 GAITASUN EZA DUTEN PERTSONENTZAKO LAN AUKERAK SORTUZ" SARIKETA.** Tokiko ekintzaile sozialekin lankidetzak sustatzeko asmoz, Lantegi Batuak-ek izaera sozialeko erronka abiarazi du "2011 gaitasun eza duten pertsonentzako lan-aukerak sortzen", eta bertan gaitasun eza duten pertsonentzako negozio-idea edo enpresa-jarduera bat duten pertsonen Lantegi Batuak-era beren proiektuak hurbildu ditzakete errealitate bihurtzeko
- > **THE 10 MILLION PROJECT 3º EDIZIOA.** Gipuzkoa Berritzen-ek proposaturiko



ekimena, zeinek bilatzen baitu Gipuzkoa berrikuntzaren mailan kokatuko duen proiektu bat, horiekin zerikusia duten proiektuak eta ekimenak, zuzenean edo zeharka, eta honako ezaugarri hauek beteko dituen: berritzailea, egingarria, garrantzitsua, traktorea, integratzailea, jasagarria eta esportagarria izatea. Zuzkidura 40.000 eurokoa da eta Gipuzkoa Berritzenen konpromisoa ekimen irabazlea bultzatzeko

- > **CODESPA SARIEN XV EDIZIOA.** Sari hauen helburua ekintza solidario baten bitartez pobrezia aurkako borrokari sektore pribatuak eta gizarte zibilak emandako laguntza aitortzea da. Hala, sari egingo dira garabideko herrialdeetako erkidegoetako bizi-baldintzak hobetzen laguntzen duten ekintzak sarituko dira lau kate-lengoaiaren bitartez: Enpresa Solidarioa, ETE Solidarioa, Boluntarioria Korporatiboa eta Garapenerako Kazetaritza
- > **BERRIKUNTZA ETA DISEINUKO SARI NAZIONALAK.** Dagoeneko badiren Diseinu Sarietatik abiatutik, Zientzia eta Berrikuntzako Ministerioak Berrikuntza eta Diseinuko Sari nazionalak sortu ditu 7 modalitate dituztenak: Ibilbide Berritzailea, Arrisku Kapitala, Erosketa Publiko Berritzailea, Nazioartekotzea, Giza Baliabide Berritzaileak, Diseinua (profesionalak), eta Diseinua (enpresak).

Ekimen honekin pizgarria eman nahi zaio teknologia-berrikuntzaren garapenera eta diseinua elementu berritzaile bezala erabiltzeari helburu horiei laguntzen nabarmendu diren pertsona eta erakundeei aitortza eginez.

Sariak izaera hertsiki ohorezkoa dute, Diseinu (profesionalak) modalitateak izan ezik, zeinek izango baitu 30.000 €-ko zuzkidura

## EMAITZAK

- Openideiak-ek hiruhileko honetan 4.340 pertsona erregistratuko kopurua lortu du
- 202 lan-talde




## GOMENDIO KATEA



Lankidetzaproiektu bat sormen berritzaileak gizaratean duen inpaktua balioan jartzen duena. Barruti oso desberdinetako eta bizi-ingurune askotarikoetako pertsonak ezagutu eta aitortzeko aukera ematen du. Innobasquek ekimen hau abiaraztea erabaki zuen jarrera berritzailea identifikatu, aitortu eta mobilizatzeko eta Pertsona Sarean txertatzeko.

Kate berri bat sortu da (dagoeneko badira 5) eta hari beste 4 kate-maila eranstean zaizkio: Beatriz Vázquez, Mikel Rentería eta Menchu Mendieta WOPEkoak, Idoia Serrano, eta Félix Arroitauregi eta Manuel Iraolagoitia.




## ZER DA ZURETZAT BERRIKUNTZA?

**Beatriz Gázquez:** "Berrikuntza dantza egitea da, elementu guztiak mugimenduan jartzea"

**Mikel Rentería eta Menchu Mendieta:** "Emozio bat sorraraztea, barruari eragitea"

**Idoia Serrano:** "Berritzea errutina, ohiturak haustea da"

**Félix Arroitauregi eta Manuel Iraolagoitia:** "Pauso bat lehenago joatea da datorrenaren eta ikusten ari zarenaren aurretik"



## THE TEN MILLION PROJECT

"Espazio", Bidasoako garapen Agentziak garatutako proiektua, Bidasoa aktiboa, joan den iraileko hilean hautaturiko agertokia izan zen "The Ten Million Project" aurkezteko. Gipuzkoa Berritzen-ek sustaturiko ekimena barruti guztietan kultura berritzailea sustatzen laguntzen duten ideia distiratsu, jasangarri eta integratzaileak aitortu, lagundu eta saritzen ditu. Eta Gipuzkoa hobea eraikitzea ahalbidetzen dutenak.

Solasaldi-gosariaren helburua, zeinetara gonbidatu baitziren pertsona ekintzaileak, ikastetxeak eta eskualdeko enpresaburuak, izan litezkeen proiektu berritzaileak azaleraraztea besterik ez zen, "The Ten

Million Project" honetako edizioan aurkeztu zitezen, edo hurrengoan, aldi goiztiarrago batean aurkitzen badira. Kasu honetan, Gipuzkoa Berritzen-ek bere laguntza eskaintzen die ideia sustatzen duten pertsonari proiektua garatzeko, hurrengo edizioan aurkeztu baino lehen.

30 profesional bildu zituen hitzorduan, Fernando Alana, Languneko Zuzendariak, Euskal Herriko Hizkuntzaren Industrien Elkarteak aurkeztu bat egin zuen Irunek izan ditzakeen aukerez bere kokaera geografikoarengatik eta hizkuntzen kudeaketaren eraginarengatik. [Irun, 2011ko irailaren 27. GIPUZKOA BERRITZEN]



### EMAITZAK

- "The Ten Million Project"-en aurkezpena [Irun, 2011ko irailaren 27]

### ALBISTE IZANGO DA

- Esp@ sareko zenbait liderren partaidetza Estatu Batuetako Ekialdeko Kostako enpresa-eta instituzio-misioan, Lehendakaria buru zutela. Sareak aurkeztu bat prestatu du Euskal Herriko lehiakortasun-estrategiaren inguruan, funtsezkoa baita haren eraldaketarako eta Esp@ misioan agertuko baita [EEBB, 2011ko urriaren 13-21]
- The 10 Million Project aurkezteko solasaldigosaria [2011ko urriaren 3, 4, 5, 6 eta 10]
- The 10 Million Project saria banatzea [2011ko azaroaren 29]
- Innobasqueren kasuak: nazioarteko lankidetzak eta barne-ekintzailatzeko azterlan tematikoak paratu eta hedatzea eta Leroy Merlin, Volvone eta First Lego League Euskadiren kasuak
- Partaidetza Ardatza: proposamen fiskal eta finantzario bat lantzea jabetzako pertsonen partaidetza sustatuko duena

### AEP.1. EMOLABORATEGIA hileroko tailerrak ezagutza trukatzeko eta proiektu-laborategia

- Autoezagutza
- Autoarauketa
- Autonomia
- Kontzientzia soziala
- Harreman-kudeaketa
- Bizi-trebetasunak eta ongizatea
- ✓ Pertsonala & profesionala
- ✓ Antolakundeak
- ✓ Hezkuntza
- ✓ Ingurune sozialak
- ❖ Ikerketak
- ❖ Metodologiak
- ❖ Esperientziak

### AEP.3. ANFITEATROA hedapena eta gizarte-sareak

- [www.consorciointeligenciaemocional.com](http://www.consorciointeligenciaemocional.com)
- Facebook 2.177 jarraitzaile
- LinkedIn 389 osakide

- Gertaldiak 2011n
- Ekoizpen editoriala
- Prestakuntza-katalogoa eta entrenamendua

### AEP.2. e-FACTORY.COOP lankidetzeta-proiektuak produktuak eta zerbitzu berriak esperimentatu eta garatzeko

#### Antolaera-ingurunea

- Barnetegi emozionala
- Elkano Programa
- Berrikuntza-ekipoak
- Eraldaketaren emozioa
- Coaching, lidergo-estilo bat
- Empresas Delfin Laborategia (LED)

#### Heziketa-ingurunea

- Androginia emozionala
- Belaunaldien arteko heziketa-aisia

#### Gizarte eta erkidegoko ingurunea

- Kirola
- Antzespren-arteak

#### Efiosasuna

- "Bitza osasuntsuagoaren aldeko ohiturak" Mugimendua

## EMAITZAK

- AEPak dagoeneko baditu 94 erakunde eta 150 pertsona
- AEPek sare sozialetan duen presentzia haziz doa: 2.177 jarraitzaile Facebook-en, eta 389 LinkedIn-en

## ADIMEN EKOZIONALAREN PARTZUERGIA (AEP)

### Emolaborategia

Tailer monografiko bat egin gaitasun sozio-emozionala "kontzientzia sozialaren" inguruan. Parte hartu zuten 34 pertsonak funtsean honako bi alderdi hauek sakondu ahal izan zituzten: "komunikazioa ez-berbala" eta "berrikuntzarako gaitasun ez-formalak". [2011ko irailaren 28]

### e.factory.coop

- > Delfin Enpresen Laborategia (LED), ezagutza berria sortzeko sortua pertsonengan

oinarritutako kudeaketan eta antolaera-eraldaketa eragiteko pertsonengandik eta partaidetzatik.

LED ekipoak dagoeneko abiarazi du bere lehen lankidetzeta Vitoria-Gasteizko Herrizaingoarekin

- > Berrikuntza-ekipoak (pertsonak eta antolaera-testuinguruak). Berrikuntza-ekipoak abian jartzean 7 erakundek eratutako lehen panel batean, eta kontaktu-hasierara bat bigarren panel bat aktibatzeke. Proiektu honek, UPV/EHUko Psikologia departamentuarekiko lankidetzan berrikuntzako ekipoen prestatze- eta funtzionatze-metodologia sakontzen du

## ALBISTE IZANGO DA

- emolaborategia: Hurrengo tailerrak:
  - Harreman kudeaketa: Ezagutza pertsonaletik eta musika esperientzietatik [2011ko urriaren 20]
  - Bizi-trebetasunak eta ongizatea: Biodantza [2011ko azaroaren 23]
- e-factory.coop:
  - Focus Group: "Presentismoa eta enpresa txikien zuzendaritza: Zer irabazten dugu begietatik denbora galduz?" [2011ko urriko 28]
  - Programa esperimentalaren 1º edizioa abiaraziz, Instagik bultzatuta, mantentze- eta elektrikari-sektoreko ETEak eraldatzeko

# III. Euskadi eraginkorrarekin konpromisoa

## I+G+b-aren Sistema Nazioartekotzea (INSIDI)

### ERA-NET PROPOSAMENEN EBALUAZIOA

Ekaina eta iraila bitarteko hilabeteetan MANUNET, MNT-ERA.Net, LEAD-ERA, SmartGrids eta EuroNanoMed 2011 deialdietan jasotako proposamenak ebaluatzeari ekin zaio. Guztira 58 izan dira Euskadirentzat barruti estrategikoetan, hala nola mikro- eta nanoteknologiak, e-osasuna, energia berriztagarriak, sare elektriko adimendunak, nano-medikuntza, etab.

Uztailaren 5ean egin zen Oslon SmartGrids deialdira aurkeztutako proposamenen nazioz gaindiko ebaluazioa. ERA-NET EuroNanoMed kasuan bilera bera Venezian egin zen iraileko 6 eta 7an.

Nahiz eta ebaluazio positiboak izan, euskal partaidetza zuten bi ERA-NETetako bakoitzetik 2 proiektu ezin izan ziren iritsi finantzazioa izatera beste herrialde batzuen aurrekontu-gabeziarengatik. Euskal partaidetza zuen proiektu 1 azkenena onartua izan zen euskal partaidetzarekin SmartGridsen deialdian. MANUNET, MNT-ERA.Net y LEAD-ERA deialdietara aurkeztutako proiektuen ebazpena urrian zehar egingo da.



### ERA-NET MANUNET BEDERATZI WEBGUNE

MANUNET II (2011-2015), proiektua apirilean abiarazi zela-eta, MANUNET (2006-2010), arrakastatsuen haren webgunea berri da eduki berri, hobeki egituratuekin, eta informazio gehiagorekin, nola MANUNETena hala fabrikazioarekin zerikusia duten gertaldiena. [www.manUNET.net](http://www.manUNET.net)



### RED ENTERPRISE EUROPE NETWORK (EEN)

> Innobasque, Euskal Nodoaren kide bezala Enterprise Europe Network Sarearen IV. Konferentzian parte hartu zuen eta bertan Sareko 850 osakide baino gehiagok parte hartu zuten, zeinak aritzen baitira laguntza-zerbitzuak ematen enpresei merkataritzaren, teknologiaren transferentziaren eta Europa I+G-arenean. Nabarmentzekoa da Sareak izan zuen ordezkartza eta laguntza Europa Batzordeko Enpresa eta Industriaren Zuzendaritza Nagusiaren aldetik, zeinek hitz egin baitzuen Sarearen jarraipenaz eta haren paper garrantzitsuaz Europa ETEen tokiko euskarri bezala. [Varsovia, 2011ko irailaren 26-28] Informazio gehiagorako: [www.eenasque.net](http://www.eenasque.net); [www.enterprise-europe-network.ec.europa.eu](http://www.enterprise-europe-network.ec.europa.eu)



Business Support at Your Doorstep

### Zer da?

Haren helburua I+G+b-aren ekarpena hobetzea eta kapital ekonomiko/gizatiarraren kudeaketako eraginkortasuna gehitzea da epe laburreko EMAITZEKIN, krisi globaleko ingurunera egokituak. Innobasqueren ekintza estrategikoko hirugarren lerro horretan honako ekintza hauek integratzen dira: I+G+b-aren Sistema Nazioartekotzea, ZTBESaren Dinamizatzea, Diplomazia Berritzailea, eta Innocampus.

### EMAITZAK

- ManUNET webgunea abiaraztea
- Euskadirentzako barruti estrategikoetan aurkeztutako 58 proposamenen ebaluazioa, MANUNET, MNT-ERA. Net, LEAD-ERA, SmartGrids eta EuroNanoMed 2011 deialdien esparruan

### ALBISTE IZANGO DA

- Ondorio-dokumentua lerketa eta Berrikuntzarentzako Finantzazioaren Europar Esparru Estrategiko Erkideaz
- I+G-ko VII. Europa Esparru Programarako sarrera-ikastaro bat antolatzea Mondragon Unibertsitateko doktoregai eta irakasleei zuzendua [2011ko urriaren 3]
- EuroTransBioren 7º Deialdia irekitzea, bere baitan honako alorrak dituena: Osasuna, nekazaritza eta elikadura, ingurumena, itsas eta industria-bioteknologia [2011ko urriaren 4]
- Manufuture Teknologia Plataformaren Urteroko Konferentzian hitzaldia Manufuture [Wroclaw - Polonia, 2011ko urriaren 24]
- MANUNET, MNT-ERA.Net y LEAD-ERA 2011 deialdietara aurkeztutako proiektu-proposamenen ebazpena [2011ko urria]
- BIO-EUROPE 2011 gertaldia Düsseldorfen egitea, industria Bioteknologikoari zuzendua [urriaren 31, azaroaren 1-2 2011ko]
- Joint Programming 2011 - "Public to Public Partnerships" urteroko gertaldian parte-hartzea [Brusela, 2011ko azaroaren 9-10]
- MANUNET 2012 deialdia, fabrikazioko ikerketa-eremu guztiarentzat irekia [2011ko abendua]
- LEAD-ERA 2012 deialdia proiektuentzat honako merkatu liderretan: e-osasuna, babes-ehungintza, eraikuntza jasagarria, birziklatzea, bio-produktuak eta energia berriztagarriak [2011ko abendua]




# Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarearen Dinamizatzea (ZTBES)

Haren helburua euskal teknologia-eragileen balio-eskaintza kohesionatu eta optimizatzea da eta euskal ehun produktiboaren garapenera erabakimenez bideratzea. Hartarako, teknologia-eskaintza eta -eskariaren arteko konexioa errazten dugu zientzia eta teknologiako ekimen estrategiko

berriak sustatuz, Sarearen gizarteratzeari lagunduz eta bertako gaitasunak hedatuz, ekarpen estrategikoaren ekarpena eginez enpresen eta instituzioen erabaki-hartzean eskaintzaren kohesioari lagunduz eragileen arteko lankidetzaren bitartez eta, hitz batean, gure

ekonomiaren behar aldakor eta hazkorrei teknologia-eskaintza hurbilduz. Gainera, lan jarraitua egiten dugu zientzia eta teknologiarako bokazioak sustatzen Iñaki Goenaga Teknologia Zentroyen Fundazioak kudeaturiko beka eta laguntza-programa zabal baten bitartez.



## Talentu Ikertzailea Sortu

2011n guztira 30 beka eman dira doktorego-tesia egiteko helburuarekin Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko (ZTBES) erakunde bazkide batean, zeinek jokatuko baitu atxikitze-zentro bezala.

Pertsona onuradunen % 40 industria-ingeniariak dira eta %13 ingeniari informatikariak. Biologia, Automatika eta Elektronikako Ingeniaritza, Telekomunikazioetako Ingeniaritza eta Biokimikako lizentziaturak bakoitza, guztikoaren %7 da eta gainerakoa, Biokimikako lizentziatura, Soziologiako lizentziatura, Ingeniaritza Kimikoa, Farmaziako lizentziatura, Ingeniaritza

Elektronikoa eta Ingeniaritza Agronomoa %3.

AZTI, GAIKER, TECNALIA, TEKNIKER, IKERLAN, ELHUYAR eta CEIT deialdian parte hartu duten eragileei eta Euskal Herriko unibertsitateen lankidetzari esker, beken onuradunak diren pertsonak aukera izango dute beren prestakuntza zabaltzeko gai desberdinetako 30 masterretan, hala nola: Ingeniaritza Aplikatua Neurozientziak, Hizkuntza eta Sistema Informatikoak, Materialen Zientzia eta Teknologia, Klimatizatzeko Teknologia eta Energia Efizientzia Eraikinetan, Biologia Molekularra eta Biomedikuntza, etab. [IÑAKI GOENAGA FUNDAZIOA]

### RESULTADOS

- 30 beka ZTBESko ikastetxeetan garatzeko 30 doktorego-beka

### ALBISTE IZANGO DA

- Bekadun berriak beren atxikitze-ikastetxeetan sartzea [2011ko urriaren 3]
- Bekak emateko ekitaldia antolatzea [2011ko azaroa]
- Goenaga Fundazioaren Patronatu-bilera [azaroa 2011ko]
- "Talentua erakartzea. Atzerritarrentzako Araudi Berria eta kualifikazio handiko langileak kontratatuzeko haren aplikazioa" Jardunaldia [2011ko abendua]



# Diplomazia Berritzailea

## TOPAKETAK:

- >> **Espainia Diseinuko Enpresa Elkartearen (RED)** zuzendaritza batzordeko bilera egitea Innobasqueren egoitzan [ 2011ko uztailaren 21]
- >> Biobasque. **Maria Aguirre**, Eusko Jaurlaritzako Bio Basque Agentziaren Zuzendariarekin topaketa, eta bertan bere estrategia aurkeztu zuen eta elkarrekin aritzeko aukerak eztabaidatu ziren [Zamudio, 2011ko uztaila 22]
- >> **Valonia (Belgikako) Erregio Gobernuaren** ordezkari baten bisita, Innobasqueren esperientzia eta haren estrategia berritzailea ezagutzeko interesa duena 8 pertsonaz osaturiko ordezkari baten buru Jean-Claude Marcourt, Erregioko Lehendakariordea eta Ekonomia Ministroa izan zen. Ondoren Innobasqueko pertsonak izan ziren Valoniak Euskadin duen Merkataritza Ordezkariaren egoitza berriaren irekitze ofizialean AWEX Bilbo-Belgikako Enbaxada), Bizkaiko Teknologia Parkean kokatua [Zamudio, 2011ko iraila 12]
- >> Bogotá Región Connecteko Lehendakaria den **Francisco Manriqueren** bisita [Zamudio, 2011ko irailaren 27]



## Zer da?

Gure nazioarteko kokamenduan aurrera egiteko programa errealitate berritzaile bezala, geure erakundeei haien nazioartekotzean laguntzea eta nazioarteko nodo eragileenekin konektatzea.

## PARTAIDETZA:

- >> Udako Ikastaroa Extremadurako Teknologia Parkeak antolatua **“Berrikuntza letra larritz”** gaiaren inguruan eta bertan Euskal Berrikuntza Sistemaren eta Innobasqueren estrategiaren aurkezpenak egin ziren [Badajoz, 2011ko uztailaren 7]

# INNOcampus

Unibertsitatearen eta merkatuaren artean lankidetzak sustatzen duen ekintza, Innobasquek lankidetzak-hitzarmenak ditu planifikatuak euskal unibertsitate-gunean, gradu ondoko ikasleek jarduerak burutu ditzaten Innobasqueko proiektuak sendotuz doazen neurrian.



## EMAITZAK:

- Hiruhileko honetan pertsona bat sartu da Deustuko Unibertsitatean bere proiektu akademikoko praktikak garatzeko. Sarrera horrekin 10 dira, 2011 urtean zehar Innobasqueren beren praktikak egin dituzten pertsonak, 3 unibertsitateetatik (UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea), eta BBK Gaztelanbidetik etorriak.

Lankidetzak horien helburua unibertsitatea enpresara hurbiltzea da eta aukera ematea gazteei lan-munduarekin eta berrikuntzarekin harremanean sar daitezela eta era praktikoa eta azeleratua beren ikasketetan lortutako ezagutzak garatu ditzaten.


## ALBISTE IZANGO DA

- “Nazioartekotzeari buruzko Jardunaldiaren” itxiera Elkano International Marketingek antolatua ELKANO International-en [2011ko azaroaren 10]
- “Gehiengoarentzat aukerak: Piramidearen Oinarriko Negozioak”, ikastaroan partaidetza, IBEREMEPRENDE eta EPIC-ek antolatua [Madril, 2011ko urriaren 5-6]

# IV. Berrikuntzaren gizarteratzea

## Innobasque kanalak

- > **Basque Innopolis hautatzaile:** fitxa dibulgatzaile tematikoa Innobasqueren aurkezpenetako gaiak sakontzeko
- > **Must BIP:** Innobasqueren asteroko buletin elektronikoa
- > **Basque Innopolis:** hileroko berrikuntza-magazinea, Innobasqueren Astearteei lotua, [basqueinnopolis.com](http://basqueinnopolis.com)-en eskura
- > **Innobasqueren Astearteak:** hileroko deialdia berrikuntzaren protagonistei foro dibulgatzaile eta ireki batean, euskal berrikuntza pertsonen, erakundeen eta komunikabideen begiradapean kokatzeko
- > **Innobasque 2.0:** Innobasqueren webguneak, blogak eta kanalak Youtube, Flickr, Facebook, LinkedIn, SlideShare, Issuu eta Delicious-en, berrikuntzako eduki garrantzitsuenak hedatu eta gibizatzen dituzte
- > **Argitalpenak:** Innobasqueren lerro editoriala eskura webgune korporatiboan



### Zer da?

Berrikuntza gizarteratzea Eraldaketaren beharra euskal gizartearen eritein jarraitzea da. Berrikuntza dibulгатzea ibilbide luzeko lana da, ezinbestekoa Innobasque Sareko eragileak egiten ari diren lana ezagutua eta aitortua izan dadin, nola barrurantz hala kanporantz.



## BILBAO HASIERATZAILEREKIN LANKIDETZAN

Innobasque lankidetzan ari da irailetik Bilbao Hasieratzailearekin hilero antolatzen dituen gertaldien hedapenean pertsonak parte har dezaten gizarte-sareen bitartez.

Hasieratzailea ekintzaile-erkidego bat da ekintzailetza sustatu eta erraztea helburu duena. Hori lortzeko jarduerak antolatzen dira hiri batean baino gehiagotan. Ekintzaileen jarduerak ekintzaileentzat, berdinez berdin ezagutza eta esperientziak partekatu ahal izateko.







## FIRST LEGO LEAGUE EUSKADI

Irailaren 2an nazioarte-mailan abiarazi zen First Lego League (FLL) 2011-2012 edizioaren erronka, oraingo honetan Elikagaien Segurtasuna (Food Factor) gaitzat duena Elikagaien kalitatea bermatzea haien kutsadura prebenituz intsektuen, bakterioen edo beste elementu batzuen eraginpean daudelako; ezagutu janariaren esterilizatze-eta garraio-prozesua; edo hura biltegitartzearen baldintzak ezagutu, horiek dira FLL Euskadi prestatzen ari diren 348 eskolarik aurre egin beharreko erronketako batzuk.

Erronka jo ondoren, irailaren 23an aurkeztu zen FLL Euskadiren edizio berri bat Derioko Euskaltelen instalazioetan. Aurreko abaguneetan saritutako ekipoak, entrenatzaileak, boluntarioak eta prestatzaileak agerian jarri zuten nola den FLL eskola berritzaile bat, izan ere ikaskuntza enpresara eraman dute, ikasgeletatik kanpora. Bestalde, FLLek tarteko diren eragileei

suposatzen die ikastetxeetan sortzen den ezagutza kasu praktikoan bitartez aditua ez den jende bati hurbiltzea.

Heziketa-proiektu honen inguruan eragile publiko eta pribatuen sare sendoa ehundu da, izan ere teknologia-zentroak (Tecnalia eta IK4), enpresak (Euskaltel, Ulma Packaging, Auzolan), administrazio publikoa (Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak, Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Saila, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa, FECYT), unibertsitatea (Zientzia Kulturako Katedra, Farmaziako Fakultatea) eta, jakina, partaideak, haien

senideak eta dagozkien ikastetxeak.

FLL Euskadiren hirugarren edizio Estatu osoan hau ekipo gehien (35) dituen gaur egun eta gazte gehien (300 baino gehiago) eta boluntario gehien (120) mobilizatzen dituen torneo da.

FLL nazioartean 1998tik urtero egiten da. Oraingo edizioan 130.000 eskolarik baino gehiago parte hartzen dute 55 herrialde desberdinetan 16.000 ekipo baino gehiagotan taldekaturik. Antolera nazioartean 33.000 boluntarioko sarea mobilizatzen du munda guztian dauden 400 torneoen inguruan.

## I. TEKNOLOGIA KANPAMENTUA

Streliak bultzaturik, Bizkaiko Teknologia Parkeak joan den uztailan, Espainian egiten den 10 eta 16 urte bitarteko haur eta nerabeentzako lehen teknologia-kanpamentuari abegia egin zion. Lehen edizio hau robotak eraikitzen eta sustatzen eta bideojokoak sortzen trebetasun berriak garatzeko tresna bezala programatzen zentratutik egon zen, joko eta laneko giro batean gazte partaideen artean. Innobasquek ekimen horri lagundu egin zion irakasleak hornituz, monitoreak prestatuz eta robotikako tailerrera materialen lagapena eginez. [Zamudio, 2011ko uztailaren 27]

### NAHIERAKO INFORMAZIO ZERBITZU BERRIA

Zuk hautatu  
eta guk hurbilduko dizkizugu

Innobasquek abian jarri du zerbitzu berri hau nahi duten erabiltzaile guztiei aukera emango diona, harpidetza egiten, nola RSS bidez hala buletin bidez, egunean-eguneko erronketarako Innobasquek garrantzitsuak jotzen dituen dokumentuak eta argitalpenak hautatzeko.

Gero eta handiagoa da sareak gure esku jartzen duen informazio-kantitatea, eta gero eta zailagoa gertatzen zaigu gure intereseko dokumentuak hautatzen eta iragazten. Horregatik, gaurtik hasita zertxobait errazago jartzen dizugu: Innobasque zure orde arduratuko da eta gaika sailkatzeaz egunero Interneten argitaratzen diren dokumentuak.

Zerbitzu horretarako harpidetza egitea interesatzen bazaizu, aski duzu Innobasqueren webgunean sartzea eta dokumentaziorako hautatu nahi dituzun gaiak hautatzea. Gainera, gordailu bat ere aurkitu ahal izango duzu orain arte sailkatu diren dokumentu guztiek.

Informazio gehiago:  
[www.innobasque.com](http://www.innobasque.com)

Información  
a la carta  
Información relevante para los  
desafíos del día a día

# Innobasqueren Astearteak



## Euskadiko Enpresa sozial berritzailea

Enpresa sozial berritzailea joera global batean txertatzen den enpresa-hazkuntzako estrategia bat da, zeinen arabera balio soziala balio lehiakor bat baita, aberastasuna eta enplegua sortzeko gai dena, gizarte inklusiboak sortuz. Enpresa soziala sentiberatzen eta aitortzen lan egiten duen Innobasquek, Laugarren Sektore abere dinamikaren bitartez, joan den irailean, Basurtuko Ospitalearekin lankidetzan "Euskadiko enpresa sozial berritzailea" jardunaldia egin zuen.

Ekitaldi hartan, 50 pertsonaren artean, honako hauek parte hartu zuten: Alfonso Gurpegui, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietako Sailburuordeak; José Luis del Val,

Deustuko Unibertsitateko Ikerketa, Berrikuntza eta Transferentziako Errektoreordeak; Txema Franco, Lantegi Batuak-eko Zuzendari Nagusiak, Nekane Narbaiza, Zaintzalango sustatzaileak; Ander Pomposo, Vívelo Travelen sortzaileak; Félix José Álvarez, Dokudearen sustatzailea; bai eta Pablo Angulo, José María Villate eta Guillermo Ulacia, Innobasqueko Programa Zuzendaria, Zuzendari Nagusia eta Lehendakaria hurrenez hurren.

Jardunaldiak, gainera, Ekintzaitza Sozialeko i-Taldeak landutako "Enpresa sozial berritzailea" lan-koadernoak aurkezteko gune bezala ere balio izan zuen. [Bilbao, 2011ko irailaren 27]



### EMAITZAK

- 126 inpaktu mediotan hiruhilekoan. Balio metatua (publizitate-baliokidetzaren arabera) 2011n zehar 3,7 milioi eurotaraino iristen da
- Hazten jarraitzen dugu gizarte-sareetan: Innobasquek 3.780 jarraitzaile baino gehiago ditu twitterren
- FLL Euskadi: 35 ekipok izena eman dute, 2010ean baino %25 gehiago

### ALBISTE IZANGO DA

#### INNOBASQUE ASTEARTEA:

- Urria: "Enpresak azeleratzea: nola bihurtu presentzia globaleko enpresa berritzaile" [Idom - Bilbao, 2011ko urriaren 18]
- Azaroa: "Enpresaren gizarte-erantzukizuna eta berrikuntza, garapen ekonomiko eta sozialerako funtsezkoak" [2011ko azaroaren 29]
- Gipuzkoa Berritzeneko Topagunearen webgunea abiaraztea
- "Euskal Hiriruntz? Lurralde benchmarking konparatua Gizarte Berrikuntzatik" jardunaldia [2011ko azaroaren 25] [GIZARTE BERRIKUNTZA]

#### FLL EUSKADI:

- Elikagaien segurtasuna, robotika, zientzia-metodoa eta boluntariotzaren roleri buruzko prestakuntza-plana abiaraztea [2011ko urria]
- FLL Euskadiren aurkezpena jardun onaren eredu bezala erregio-bazkideentzako prestakuntza nazionaleko saioretan [Barcelona, 2011ko urriaren 26 eta 27]
- FLL Euskadi Torneoa [Euskaltel - Derio, 2011ko abenduaren 3]



# Eranskinak

## “Lanera irekitako gogoak”

**Sonsoles Zubeldia** - El País, 2011ko urriaren 1

“Hau 4ez da solidariotasuna bakarrik. Ez diogu uko egiten eraginkortasunari eta enpresari balio-ekarpen bat egitea eskatzen dugu”. Fernando de Santiago, Vidrala, beiragintzako arabar firmako Giza Baliabideen Zuzendariak hala azaltzen zuen atzo Asier, 38 urteko, Historiako lizentziatura duen eskizofreniko bat konpainian integratzea, tailerrean moldeak garbitzeaz arduratzen dena. “ez da ekoizpen-prozesu erraza, fidagarritasuna eta ahalegin fisikoa eskatzen du” adierazten du De Santiagok

Enpresa hau lehenengoetako bat izan da Innovalani atxikitzen, buruko nahasteak dituzten pertsonak lan-munduan txertatzen laguntzea bilatzen duena. Baterako ekimen bat da elkarte eta erakunde oso desberdinetakoen artean: Gaixo Psikiatriko eta Senideen Elkarte Bizkaitarra (Avifes); Osakidetzako Osasun mentaleko sare bizkaitarra; Bizkaiko Teknologia Parkea, Innobasque, Bizitegi, Lantegi Batuak, Argia Fundazioa, Emaus, Eragintza Fundazioa eta Hogar Izarra. Atzo aurkeztu zuten beren proiektua, konpainia berrien atxikimendura irekia ([www.innovalan.eu](http://www.innovalan.eu)). “Ez dago beste batzuk baino egokiagoa den enpresarik” azpimarratzen du De Santiagok.

Javier Guerras-i, 31 urte betetzeko zorian dagoenari, eskizofrenia diagnostikatu zioten 17 urterekin - “nire gurasoek portaera estrainioak detektatu zidaten”- eta denboraldi batez bertan behar utzi behar izan zituen ikasketak. Gero gradu ertainean jarraitu zuen bere prestakuntza, baina berriz erori zen. Serigrafia-ikastaro bat egin zuen Indautxun eta alarma-instalazioko enpresa batean lortu zuen bere lehen kontratua. Harrezkero etenik gabe ari da lanean.

Koadro elektrikoak instalatzeko enplegu batetik igaro ondoren, kontratatu

zuen lehen firmara itzuli zen harik eta duela bost urte Crohnen gaitza diagnostikatu zioten arte. 2008tik, Etxano-Amorebietako Jeremias firman ari da lehen soldatzaile gisara eta altzairu herdoilgaitzeko plasma bidezko hodian ebaketa egiteko makinak maneiatuz. Ganoraz zentro bereziaren bitartez lortu zuen lanpostua. “Bizimodu erabat normala egiten dut. Independizaturik bizi naiz neure bikotekidearekin eta aita izan naiz duela bi hilabete”, kontatzen du Guerrasek. “Sekula ez zait falta izan lana eta nire buruzagien eta lagunen onarpena erabatekoa izan da”, gehitu du Guerrasek.

De Santiagoren iritziz, burko gaixoa duen baten integrazioa pertsonaren eta lanpostuaren arteko korrelazioa ongi aztertzeak, langile berriaren inklusioa eta ezaugarriak enplegatuei jakinarazteak, lagunduko duen lan-prestatzaile batek babestua bere burua ikustetik pasatzen da, batez ere lehen egunetan, “beldurrak uxatzea” eta erakunde espezializatuaren aholkularitza izatea ere beharrezkoa da.

Buruko gaixotasun bat duen pertsona bat kontratatzeak baditu, gainera, abantaila fiskalak ere. Hasteko, 3.907tik 7.814 euro bitarteko diru-laguntza bat dago itzuli beharrik gabea eta Gizarte Segurantzako kuotan hobariak 3,500 eurotik hasita. 23.000 bat pertsonak dute buruko gaixotasunen bat Bizkaian. %5 eta %15 bitarteko kopuru batek bakarrik du lana.



## “Enpresa sozial berritzailea”

**José María Villate** - Innobasqueko Zuzendari Nagusia - “Enpresa sozial berritzailea” argitalpenaren sarrera, 2011ko irailaren 27



Euskadiren erronkak gizarte aurreratu guztienak dira, zeinek bideratzen baitute beren geroa garapen eta hazkuntza jasangarriko eredu baterantz beren hiru aldetan: ekonomikoa, ingurumenekoa eta soziala. Helburu generiko hori ezartzen den bidea berrikuntzatik igarotzen da.

Bide horretan, Eraldaketa zerumugan dela, eta krisi-abagune global batekin, ulertu dugu azeleratu beharra dugula negozioen kontzepzioan, enplegua sortzen, eta enpresak inplikatu beharra duela garapen sozialean geroko jasangarritasunaren iturri bezala

Testuinguru honetan, enpresa sozial berritzaileak tresna-funtzio garrantzitsua du eredu sozial eta ekonomiko desberdin eta inklusibo bat eraikitzen eta planteamendu argio desberdindu batekin erantzukizun sozial korporatiboarena.

Hasiera batean oso erraza gerta daiteke “enpresa sozial berritzailea” enuntziatuaz mesfidatzea. Alde batetik, bat baino gehiago sentituko delako tentatua galdetzera ea badagoen “soziala” ez den enpresarik. Eta bestetik, enpresa soziala oraindik nekez ulertzen delako, eta abagune gehienetan boluntariorikaren sektoreak txertatua edo karitatearen babespean. Baina hori argitu beharreko nahaste baten parte da, zeren eta haren zirrikituetan barneratzen bagara beren produktu eta zerbitzuetatik bizi diren enpresak direla aurkituko dugu, eta gainera haziz eta enplegua sortuz jarraitzeko gai direla, baita krisialdian ere.

Nazioartean, enpresa soziala sistema sozial eta ekonomikoaren funtsezko atal bezala jotzen dute, bai eta krisiaren irteera posible bat ere. Hala erakusten dute herrialde desberdinetan abian jarri diren ekimen, programa eta politika desberdinek. Erresuma Batuan, adibidez, sektore bereki gisa aitortzen da eta British Cabinet-ek bere baitan du Enpresa Sozialeko Ministro bat. Bestalde, EE.BB.etakoa Lehendakariak, Barack Obamak Berrikuntza Sozialerako eta Hiritarren Partaidetzarako Bulegoa sortu du

“emaitza itxaropentsuenetara bideratutako programak identifikatu eta herrialde guztian zehar hedatzeko”.

Euskadin, enpresa soziala ez da zer bait ezezaguna, zeren eta euskal enpresaburuen konpromiso soziala eta tradizio kooperatiboa erroturik baitago negozioak egiteko gure eran. Horren lekuko dira EHAeko ekonomia soziala taxutzen duten antolaera guztiak, zeinek sortzen baitute enpleguaren %6,3 eta euskal ekonomiaren BEGaren %4,3ren ekarpena egiten baitute. Eta baditugu arrakasta-kasu batzuk enpresa sozialaren euskal kasuaren kontakizuna iragartzea ahalbidetzen diguna, eta agian baita eredu propio batena ere, zeinek ematen baitugu bistartzeko aukera aldi berean sor litezkeela balio ekonomikoa eta balio soziala

Oinarri horretan garatzen da enpresa sozial berritzailea rol esanguratsua bat jokarazten dioten ezaugarri batzuekin herrialdearen eraldaketan honako hauei esker:

- **Pertsonak.** Proiektuen erdigunean daude. Kezka pertsonaletatik sortzen diren proiektuak dira, lankidetzatik eraikitzen dira, eta onura sozialera bideratuak daude. Innobasquerentzat, berrikuntza soziala funtsezko elementu bat da berrikuntzarako “pertsonengan, pertsonekin eta pertsonentzat”. Beraz, ez da irudikatzen eraldaketa soziala ez bada begiesten pertsonengan zentratutako ikuspegi batetik.

- **Inklusioa.** Enpresa mota honen ezaugarria balio sozialaren sortzailea izatea da gizarte inklusibo bat, integratzaile eta zuzen bat lortuz eragile eta pertsona guztiak kontuan hartzen dituen. Horien artean daude eskusio-arriskuan dauden pertsonak ere beren ezgaitasunarengatik edo lan-merkaturako irispidea zailtzen faktorengatik.

- **Erkidegoa.** Enpresa sozial berritzailea behar sozial baten erantzun bezala sortzen da. Zuzeneko inpaktua du erkidegoan, eta hiritar-partaidetzako guneak garatzen laguntzen du. Hitz batean, erkidegoak berrelikatu egiten du enpresa sozial berritzailea bere izatearen funtsezko osagaia den heinean.

- **Enpresa sozial berritzailea ezer baino lehen negozio mota bat da balio soziala,**

hazkuntza ekonomikoa eta enplegua sortzen laguntzen duena. Haren ezaugarriek aurrerapen bat dakarte negozioak pentsatzeko eran, lan-erak aurrerazi egiten ditu, ideiak sortzeko eran eta kolektibo sozial guztien partaidetzan. Gainera, antolaera mota horiek errealitate sozialaren barruan negozio-aukera berriak detektatzearen ezaugarria dute.

- **Berrikuntza.** Berrikuntzak zuzendu eta sustatutako antolaerak dira. Barruti sozialera ekartzen dituzten soluzioek izaera berritzailea dute. Hortxe datza hain zuzen ere haren balio desberdina, eta hedapenez, herrialdearen ekonomiari egiten dion balio desberdinaren ekarpena. Berrikuntza haren izaeraren parte eta enpresa horien katalizatzailea da.

- **Eraldaketa.** Enpresa horiek erantzun berritzaileak eta abangoardiakoak eskaintzen dituzte gure herrialdeko erroka sozialei, eta gurea bezalako gizartei. Haren zerbitzuek tresna gisa balio dute gure eredu sozial eta ekonomikoa eraldatzeko.

Aitortu beharra dago ekintzailtza sozialeko i-Taldearen jarduerak onak, Innobasqueren Laugarren Sektorearen dinamikaren barruan txertaturik, orain arte enpresa sozialaren sentiberatzailea eta ahalmen ekonomikoa aitortzera bideraturik egon baita ingurune sozio-ekonomikoan aberastasunaren sortzaile gisa, bai eta dokumentu honetan aurkeztzen diren hiru negozioen enpresa-sorkidetzako prozesuak laguntzera ere: Zaintzalan, Vívelo Travel eta Dokudea.

Ez da proposatu lan-koaderno honetan “enpresa sozial berritzailearen liburua” garatzea, baizik eta beharrezkoa bezain desberdina den ekosistema bat bultzatzen laguntzea, zeinek baitu bere proiektuak eta bere ospea sendotu beharra. Horregatik espero da, irakurketan, koaderno hau dokumentu bizi bezala hartzea elkarriketa estimulagarri baten hasiera bezala.



## “Hiriez ez dute ederrak izan behar bakarrik, erosoak ere bai”

ELKARRIZKETA: **Nani Marquina** - REDeKo lehendakaria (Espainiar Diseinu Enpresen Elkarte) - El Correo, 2011ko uztailaren 21

**JORGE BARBÓ.** Hiriek lehen begiratuan jendea maitemintzeko gai izan nahi dute. Baina REDen lehendakaria (Espainiar Diseinu Enpresen Elkarte) ez da azalean geratzen direnetakoa. “Diseinua estetika hutsa baina harago doa. Bizi-kalitatea eman behar zaio jendeari”, ziurtatzen du. Eta badaki zertaz ari den. Diseinuaren Sari Nazionala du, Nani Markina (Bartzelona, 1952) gaur Bilbo bisitatzerako dator Diseinuaren Munduko Hiriburuen hautagaitzari laguntza ematera Innobasque antolatutako jardunaldi batzuetan.

### - Zer baldintza izan behar ditu munduko diseinuaren “mekak”?

- Ezer baino lehen, hitarren beharretara egokitzea. Ez zaie begiratu behar soilik eraikin handiei, zeren inor ez baita sentitzen arkitekturaren katedral handiek ordezkaturik. Nahiz eta egia den garrantzitsuak direla mapan kokatzeko.

### - Bilbok ba al du hiriburutzaren jabe bihurtzeko aukerarik?

- Bai. Bilbok oso ongi egin du bere burua berrasmatez. Eta horrek meritu handia du. Azken finean, eraldaketa eraikin batzuen bitartez gertatu da. Baina horiek ez dira garrantzitsuena. Hiriak hau esaten asmatu zuen: “Dagoeneko baditugu lantegi handiak eta orain zentzu berri bat bilatu behar da”. Zorionak eman behar zaizkio Udalari, berrikuntza handi bat gidatzen jakin baitu

### - Bilbotarrek hiriaren erritmo berrira egokitzen ere jakin dute...

- Noski. Ez da halabeharrezkoa hiriak proposatzea ‘diseinu-hiri’ izateko. Hori sortzen da aztarnak daudelako, Guggenheim balioesten duen jendea, Mariscalen hotela...

### - Alfonbra-diseinatzaile bezala ohiturik egongo zara lurzorura begiratzen... Zer iruditzen zaizu Bilboko baldosa?

- Hiri batek baldosa bat bezalako elementu bat hautatzea desberdintzeko

oso garrantzitsua iruditzen zait. Lauzatxo bat bezalako gauza simple batek identifikatu egin dezake Berdin dio polita edo itsusia izatea..., beste hiri bat ez bezalako egitea da bikaintasunaren gakoa, arrakasta estetikoarena.

### - Alfonbrez ari garela. Udalak Calatravaren zubian irristatzearen kontrako bat ezarri behar izan du laprastadak eragozteko Diseinu-akatsa al da hori?

- Bai. Zalantzarik gabe. Hiriek ez dute ederrak izan behar bakarrik, erosoak baizik. Eta ez dira elkarren aurkako. Ez da egia gauza politik praktikokoak izan ez daitezkeenik. Aurrenekoa jendea ez labaintzea da, ez ditzala zaindu bere oinetakoak erortzera doan begiratzeko. Bestela ez du funtzionatzen. Hori batzuetan gertatzen da arkitekto batzuekin, formarekin itsutu eta funtzionaltasunaz ahazten baitira.

### - Nola balioesten dituzu beste bi hautagaitzak?

- Dublin hiri klasikoegi bezala ikusten dut. Eta Lurmutur Hiria...nik ez diot ezer interesgarri aurkitzen. Europatik, diseinua bizi den tokitik distantzia handia egotearen zailtasuna du.

### - Zure hiria modernotasunaren erreferentzia da Espainian. Zer falta zaio Bilbori Bartzelona izateko?

- Zehatzagoa litzateke galdetzea zer falta zaion Bilbori diseinuaren hiria izateko. Denbora besterik ez du behar. Hemendik urte batzuetara, Bartzelonaren ondoren, Bilbo izango da.

### - Jendea orain estetikarekiko sentibera-goa al da?

- Hiriak hiritarrek eginak daude eta haiek bilakatzen eta eraldatzen dituzte. Konbentziturik badaude edozein kale, plaza edo negoziotan diseinua txertatu behar dela, hiria aldatu egingo da.

### - Inoiz izan al duzu bat-batean denda batera sartu eta: “hori kartel itsusia!” jabeari

### esateko gogorik”?

- Kar, kar, kar. Kataluniarrak zuhurragoak gara. Bertara joateari utzi egiten diogu zerbait gogoko ez dugunean. Bartzelonan diseinuarengatik grina izan genuen garai batean, eta orduan dena aldatzen zen, funtzionatzen zuena ere bai. Hutsegite bat izan zen. Espero dut Bilbon ez dela gertatuko halakorik.

### - Zer aldatuko zenuke Bilbon?

- (Denbora hartzen du). Ez zaizkit batere atsegin taberna tipiko horiek, non begiratu egin behar baituzu non ezartzen duzun oina txotzez eta paperez beteta daudelako. Baina oso gogokoa dut argia, itsasadarra...Denari aurkitzen diot bere puntua.

## “Turismo jasangarria ez da tokiko garapenari laguntzea bakarrik, esperientzia erreal bat lortzea da”

ELKARRIZKETA: **María Rubio eta Gerardo Amunarriz** - Vívelo Travelen sutatzaileak - Euskadi+innova, 2011ko urriaren 7

María Rubio eta Gerardo Amunarriz Vívelo Travel proiektuaren sortzaileak dira, bestelako turismo bat, jasangarritasunean oinarritua bultzatzeko proposamen bat. Arestian oso antzeko ekimen bati lotu zaizkio Euskadin, Baobab, eta elkarrekin plataforma bat eraiki nahi dute turistak eta tokiko ekintzaileak harremanetan jarriko dituen, erkidegoen garapen ekonomikoari laguntzeko eta aldi berean, esperientzia errealak eskaintzeko ohiko pakete turistikoek harago. Epe laburrean abiaraziko dute pilotua eta enpresa urtearen bukaeran abiarazteko asmoa dute.

### Zer esan nahi du zuentzat turismo jasangarri edo arduratsuak?

María Rubio: Gaur egun etiketa asko entzuten dira, turismo etikoa, arduratsua, jasangarria... hasieran esan genuen, tira, guk non kokatu nahi dugu geure burua? Eta hor izan genuen eztabaida pixka bat. Ihes egin nahi genuen etiketatik eta horregatik izendatu genuen “positive impact travel”, zeren azpimarratu egin nahi baitugu turismo horrek lurraldean izan behar duen inpaktu positiboa. Beste hau ere pentsatu genuen, zer pasatzen da, turismo mota horretatik kanpo bidaiatzen duena arduragabe bat hala ere oso zorrotzak gara esperientzia eta ostatuak onartzeko lan egin nahi dugunekin eta irizpide horiek bai datozela bat turismo jasangarriak defendatzen duenarekin. Hiru esfera dira funtsean, inpaktu positiboa ekonomian, ingurumenean eta kulturaren. Ekonomian, tokiko ekintzaileak berak izan daitezela negozioa kudeatuko dutenak eta mozkinaren parte handienarekin geratuko direnak ere, eskuarki hori ez da gertatzen. Halaber, turismoak mesede egin diezaiola tokiko garapenari, produktuak gune

hartakoak izatea, garraioa tokioa izatea... Ingurumenari dagokionez, proposamen jasangarriak izan daitezela, eta kulturaren mailan tokiko kultura kontserbatzen saia daitezela eta bisitarien eta tokikoen artean trukea indartu dezatela.

### Zer balio urte duzue dakarrela aukera honek bidaiariarentzat ohiko turismoaren aurrez aurre?

María: Nik uste dut batez ere jendemasetatik ihes egitean datzala, eta horrek ere zerbaiten ekarpena egin dezake, jakina, baina beste era hau ezagutzen baduzu ikusi egiten duzu desberdintasuna. Gu Brasilen bizi ginela nire familia etorri eta Amazonasen izan ginen. Resorta duen arruta tipikoa egin beharrean, tokiko erkidego batekin topo egin genuen kanoatan bila etorri zitzaiguna eta bost egun eman genituen han haiekin, txabola batzuetan, arrantzan,... Familiak esaten zidan, nola aurkitu duzue hau? Aukera aberastzaileagoa eta errealagoa da. Hori litzateke bidaiariarentzako plus bat. Eta gainera jakitea bide batez erkidegoa garatzeari eta bere ingurumen- eta ondare-balioa iraunarazten hari laguntzen ari zarela, hori daramazu trukean.

Gerardo Amunarriz: Tira, eskuturrekotoarekin ibili beharrean, zeren ez baitakizu munduko zein alderditan zauden, berdin baitzaizu Kanarietan, Karibean edo Indikoan egotea, tokiko gauzak partekatzeak aukera izan dezazula, haien balioak ezagutu, haien kultura eta bizimodua.

“Zenbat eta gehiago bidaiatu, jadanik ez dugu bilatzen deskonektatzea, beste esperientzia batzuk izan nahi ditugu”

### Zer zerbitzu eskainiko ditu Vívelo Travel-ek? Aukera horiek hedatzeko plataforma

### bat izango al da?

María: Geure lanengatik biok asko bidaiatu dugu eta garapen-fundazioekin harremanetan egon gara. Tokiko turismo-ekimen asko ezagutuz joan gara, arrakasta izatea lortzen ez zutenak Europako merkatuan ez baitira ezagutzen. Haiek ezagutarazteko eta erkidego horiek baliatu eta turismoari esker bizi ahal izateko, zer egin genezakeen galdetu genion geure buruari eta Interneten ikusi genuen soluzioa, bera baita pertsonak elkarrekin lotzeko bitarteko sinpleena.

Gerardo: Ikusi genuen balioaren ekarpena egin genezakeela erakusleho birtual bat eskainiz, beraiek merkatura irten ahal izateko plataforma bat. Orain hutsarte izugarria dago bidaiarien eta haien artean, eta ez dago modurik iristeko, edo motxilarekin zoaz abenturara edo oso zaila da. Potentzialtasuna izugarria da, zeren turismo hau asko ari baita gehitzen. Eskaini nahi duguna tresna bat da besteak publikizatu daitezela, segurtasuna transmitituko duen marka bat, eta gure lana datza publikizatzen diren ekimen horiek baldintza batzuk bete ditzatela, transakzio guztien funtzionamendu zuzena segurtatzen.

### Dena bera batian duen pakete bat erreserbatzeak baino askoz segurtasun gutxiago eskaintzen du...

María: Jakina, publikitate-gabezia gainera, dituzten handicap handietako batzuk erraztasunik ez izatea da on-line erreserbak egiteko ezta ordainketak egiteko ere. Ikusi dugu jende asko ez dela ausartzen Peru bezalako herrialde batera joaten, zer esanik ez Afrikara, halako ostatu erreserburik dutela esaten dien par bat gabe, gela bat berentzat erreserburik duten lasaitasuna emango diena. Hedapena emateaz gainera,





tresnak eskaini nahi ditugu erreserbak eta ordainketak egiteko eta gu izan bitartekariak. Hori bai, ez dugu agentzia bat izateko asmorik, zeren hori ikusten genuen arazoetako bat baitzen, ekintzaile horiek uneren batean hurbilduak zirela handizkariaren batengana eta %100 batez kargatu dituela. Demagun Amazonaseko txabola galdu batean gela bat 20 euro kostatzen dela, komisioa horri gehitzen badiozu 40 euro dira eta seguru asko ez du hainbeste balio, ito egiten dituzte haien saltzeko aukera. Guk aurreikusita daukagu gutxieneko komisio bat autojasangarriak izateko baina ez diogu kargatu nahi ez hornitzaileari, oso apala baita, ez bidaiariari prezio altuegiekin.

#### **Nola kontaktatzen duzue tokiko ekintzaileekin?**

María: Baobabetik, Ander eta Javierrek Banesto Fundazioan lan egindakoak ziren Afrikan ekintzaileak identifikatzen, eta dagoeneko badute sare handi samar bat, batez ere emakumeena. Han beraiek izan dira herrialdez herrialde ibili direnak gure irizpideetan sartzen ziren ekimenak iragaziz. Gu sarrerekin gehiago kontaktatzen hasi ginen, bai baikenekien bazirela, batez ere Latinoamerikan. Esate baterako, REDTURS landa-turismo komunitarioko sarea dago, Latinoamerikako herrialde guztietako federazioak bere baitan dituen, eta haiek bestalde lankide dira tokiko ekintzaileekin erregio bakoitzean.

Gerardo: Erronka alde batetik kanporanzko komertzializazioan dago, gu bidaiariarekin, eta bestetik, produktu komertzializagarriak egitearen partea Internet bidez ongi funtziona dezaten. Adibide oso on bat asteburuko opari paketatuak dira, edozein tokitan eros ditzakezunak, hotel-gau bat

opari bihurtuz. Nik uste dut hemen pixka bat erronka hori daukagula eta GKEak behar ditugula handik lagunduko digutenak. Horrek erraztasun handia ematen du, zeren herrialdean bazkide bat baituzu sortzen diren arazoak konpontzeko gai dena.

#### **Noiz hasiko zarete zerbitzu horiek eskaintzen?**

María: badugu duela urtebete funtzionatzen ari den blog bat zeren ideia hasieratik bertatik partekatu nahi izan baikenuen, produktua guztiz garatura eduki baino lehen, denon artean eraikitzeko, hornitzaileekin, erabiltzaileekin, jende interesatuarekin...

Gerardo: Aldi berean, pilotua garatzen ari gara. Botila-epoa finantzazioan dago eta horixe falta zaigu pilotutik zerbait indartsura igarotzeko, nahiz eta pixkanaka harremanak baditugun inbertitzaileekin. Izatez pertsona interesatuak atera zaizkigu penintsulako landa-turismoko sare baterako, zeren ez baitute zertan izan garabidean dauden herrialdeetako ekimenak bakarrik, irizpideak betetzen badituzte behintzat.

María: Gure asmoa uda honetan pilotua abiaraztea zen, baina ia beti gertatzen denez, konplikazioak sortu dira eta xehetasun batzuk konpondu behar ditugu. Baina dagoeneko ofizialki abiaraztekotan gara, hilabete batean prest izango dugu pilotua eta merkatuan nola funtzionatzen duen ikustean, bideragarria eta egokia bada, orduan enpresa gisa eratuko dugu geure burua. Urtearen bukaeran izatea espero dugu.

## Hiruhileko argitalpenak



### Enpresa sozial berritzailea

Egilea: Innobasque

Data: iraila 2011

Enpresa sozial berritzailea ordezeko erantzun bat da hazkuntza jasangarri eta inklusiboko eredu berri batetik haren hiru alderdietan: ekonomikoan, ingurumenekoan eta sozialean. Argitalpen honen helburua, Innobasqueren Laugarren Sektorearen Dinamikako Gizarte Ekintzaitzako i-Taldeak burututako lanaren fruitua dena ekosistema horri bultzatzen laguntzea da, beharrezkoa bezain askotarikoa baita eta bere proiektuak eta ospea indartzea behar duena.

Editatzailea: Innobasque

## Jasotako argitalpenak



### The global talent index report: The outlook to 2015

Egileak: Heidrick & Struggles y The Economist Intelligence Unit

Talentua lehiakortasunaren osagai garrantzitsua da, epe luzera, negozioetan eta herrialdeetan. Beraz, nola garatzen diren talentuak eta talentua nola erakarri eta kontserbatzen den etorkizun hurbilean, arduradun politikoen eta enpresa-liderren agendetako puntu garrantzitsuak izan beharko dute. Global Talentuen Indizearen Txostena: 2015erako ikuspegiak informazio gehiago eman nahi du gai horri buruz talentuei buruzko munduko joerak ebaluatuz bi dimentsiotan: nazioartean erreferentzia-indize bati esker 60 herrialdetako talentu-ingurune buruz.



### Crecimiento y competitividad: trayectoria y perspectivas de la economía española

Egilea: BBVA Fundazioa

BBVA Fundazioak eta Iviak argitaratutako txosten honek espainiar ekonomiaren arestiko ibilbidearen diagnosi bat eskaintzen du eta hazkuntza berreskuratzeko eta garapen jarraitu bateko aldi sartzeko neurriak proposatzen ditu, zeinek eskainiko baitio espainiar gizarteari aurrerapenerako aukera berriak. Francisco Pérez-ek zuzenduriko lanak ondorio gisa dio, ekonomia globalean bere lekua aurkitzeko, Espainiak bere egitura produktiboaren modernizazioa behar duela, ezagutza eta berrikuntzaren aktiboen erabilera intentsibo bat inplikatzeko duena eta euskarria ezartzen dioten instituzioen eraberritze sakona. Egileek, gainera, azpimarratzen dute enpresatik eta sektore publikotik premiatasunez jokatu behar dela eta eraberritzeen aldeko gizarte-giro batean oinarritu behar dela.



### Entrepreneurship at a Glance 2011

Egileak: OCDE

Lankidetzeta eta Garapen Ekonomikorako Erakundeak (OCDE/ELGE) azterlan interesgarri bat ematen digu herrialde bazkide desberdinetan enpresa berrien eratze-maila aztertuz. Haren planteamendua da enpresaburu berriek finantzazio-eskuragarritasuna behar dutela enpresa-proiektu berrietarako herrialde desberdinetan eta haren mailak era garrantzitsuan eragiten du enpresa-prestakuntzan. Enpresaburu potentzialen finantziorako sarbidea aztertzen dute, merkatu-baldintzak, esparru arautzaileak eta hautemate kultural eta sozialak enpresa-jardueraren gain duen inpaktu, baikoro edo ezkorra ulertzeko.



### The Global Innovation Index 2011

Egilea: **INSEAD**

Berrikuntza Globaleko Indizea 2011k munduko 125 herrialde/ekonomia sailkatzen ditu haien berrikuntza eta haien emaitzen arabera. Txostenak berrikuntzan emaitza hoberenak lortzen dituzten herrialdeak nabarmetzen ditu, ahulguneak gaindituz ekarpenen ikuspuntutik -berritzaile efizienteak- eta atzean geratzen diren herrialdeak beren berrikuntza-ahalmena aprobetxatzerakoan. Berrikuntza gaian, emaitzak aztertzen dira diru-sarrerak eta erregio-taldeak erreferentziatzat harturik.



### Estrategia de Desarrollo Sostenible de Euskadi 2020

Egilea: **Eusko Jaurlaritza**

EkoEuskadi 2020, ekimen enblematiko bezala IX. Legengintzaldirako Plan eta Jarduera esanguratsuen Egutegiaren barruan sartua Euskadiren Garapen Jasangarrirako Estrategia da 2020 arte eta, halakoa den heinean, jasangarritasunaren ikuspegitik sektore-planak bere baitan hartzen dituen helburu estrategikoak ezartzen dituen tresna da. EkoEuskadi 2020k "Garapen jasangarria" kontzeptua sakontzeko balioko du, haren inplikazioak barneratuz sailarteko eta sektorearteko politiken diseinurako.



### Eco-Innovation in Spain

Egilea: **Eco-Innovation Observatory**


Ekoberrikuntzari buruzko Behatokiak askotariko informazioa bildu eta azterlan egituratuak egiteko plataforma bezala funtzionatzen du; ekoberrikuntzari buruz Europako Batasunari eta munduko ekonomia-erregio nagusiei buruz eta ekoberrikuntzari buruzko informazio-iturri integrala da berrikuntza-zerbitzuen konpainia eta hornitzaileentzat. Halaber, oinarri sendo bat da politikagintzarako erabakiak hartzeko ere.



### Informe de Competitividad del País Vasco 2011

Egileak: **Orkestra**

Euskal Herriko Lehiakortasun Txostena 2011 Orkestrak argitaratutako aldizkako txostenen artean hirugarrena da, Euskal Herriko lehiakortasunaren gaurko egoerari buruz gogoeta bat eskaintzen duena, bai eta etorkizuneko erronkak eta aukerak ere, Orkestraren jardueran eragina izango duen esparru bat finkatuz eta, bere proiektuen bitartez, Institutua lankide duten lurraldeko eragileen jardueran ere bai.



### Innovación. Perspectivas para el siglo XXI

Egilea: **BBVA**

BBVAk argitaratzen duen sailaren barruan, hirugarren liburu honetarako hautatutako gaia berrikuntza da. Hautapen horrek oinarritzko bi irispideri erantzuten die: lehena berrikuntzak duen garrantzi erabakigarria da hazkuntza ekonomikoa bultzatzeko faktore nagusi gisa eta epe luzera pertsonen bizi-estandarrik hobetzeko. Hala izan da historian zehar, baina gure gaian aukera mugagabeak irekitzen dira berrikuntzarako, zientziaren eta teknologiaren aurrerapen azeleratuarekin parez pare. Bestalde, gaur egun berrikuntza inoiz baino beharrezkoagoa da giza espeziearen erronka handiei aurre egiteko: berdintasunik eza eta pobrezia, hezkuntza eta osasuna, klima-aldaketa eta ingurumena.



### La compra pública de tecnología innovadora en Biotecnología (2011)

Egilea: COTEC

Cotec-en liburu berri honetan teknologia berritzailearen erosketa publikoaren (bTEP) kontzeptua ezartzen zaio Bioteknologiaren merkatuari, eta zuzenbide praktikoak eskaintzen dira hura kudeatzeko, bai sektore publikoaren aldetik, eta bai pribatuarenetik. bTEPk, erosketa publiko orok bezala hiritarren zerbitzuak hobetzen lagundu behar du, baina aldi berean enpresetako berrikuntza erraztuko duen tresna izan behar du. Bioteknologia sektore horizontala da inplikazio askorekin merkatuen barietate izugarri batean, eta horregatik liburuan produktuen edo prozesu bioteknologikoen adibide oso esanguratsuen aukera bat eskaintzen da bTEPetik argiroen hurbil dauden merkatuetan.



### MEMORIA Socioeconómica 2010 País Vasco

Egilea: CES

Beste urte batzuetan bezala CESeK ekarpina egiten jarraitzen du Memoriaren, analisi-tresna baliotsu eta baliagarriaren bitartez, izan ere euskal gizartearen erradiografia bat egiten du datu kontrastatuetan oinarritua eta kontsiderazioak lausotu litzaketen abagunezko premiatasunetatik urrundua. Hala ere, Memoria Sozioekonomikoaren balio adierazgarriena hura lantzen inplikatu diren eragile ekonomiko eta sozial desberdinen gogoeta baterako eta adostuko lan-izaera da.



### Renewables 2011 Global Status Report

Egilea: REN21

2011ko Baliabide Berriztagarrien Mundu Egoerari buruzko Txostenak, REN21ek arestian argitaratuak, energia berriztagarrien sektoreak emaitza onak lortzen jarraitzen duela islatzen du, atzeraldi ekonomikoa, pizgarrien murrizketak eta gas naturalaren prezio baxuak gorabehera. Txostenak, Janet Sawin Worldwatch Institutetako ikertzaileak egina, ikerketa-bazkideen sare globalaren lankidetzarekin adierazten du, 2010ean, energia berriztagarriak azken energia-kontsumo globalaren %16 bat hornitu zuela eta % 20 inguru elektrizitatearen ekoizpen globalarena. Ahalmen berriztagarria orain ahalmen guztizko globalaren laurden batekoa da elektrizitatea ekoizten. Baldin eta hor sartzen badugu energia hidroelektrikoa eskala txiki eta handikoa (30 GW gehitu 2010ean), energia berriztagarria %50 izan zen gutxi gorabehera 2010ean elektrizitatea sortzeari gehitutako ahalmenean 2010ean. 2010ean, airearen eta uraren eguzki-energiaren bitartezko berokuntza-ahalmena 25 gigawatio termikokoa igo zen (GWth), %16 ingurukoa.



### Diez años de divulgación científica en España

Egilea: FECYT

Argitalpen honek begiratu bat ematen dio Espainiako azken hamarkadako zientzia-dibulgazioari, FECYTek burutu duen paperean zentratuz, lortutako mugarrietan eta geroko proiektuetan. Halaber, espainiar munda dibulgatzailearen ikuspegi orokor bat eskaintzen du eta zientzia-inguruneke figura ospetsuenetako batzuen idazlanak dakartza. Egile bat baino gehiago da obra honen sinatzaile: Moncho Núñez (MUNCYT Zuzendaria), María Blasco (CNIO), Miguel Ángel Quintanilla (ECYT/Fundación 3CIN) edo Emilio Muñoz (CIEMAT).





### The Global Competitiveness Report 2011-2012

Egilea: **World Economic Forum**

Lehiakortasun Globalari buruzko txostena 2011-2012, ekonomia globalerako erronka askoren artean, ekonomia aurreratuetatik urrun jarduera ekonomikoko orekaren aldaketa etengabea eta gorantz datozen merkatuei begira sortu da. Arduradun politikoak borrokan ari dira gaurko erronka ekonomikoak kudeatzeko erak bilatzen, aldi berean beren ekonomiak emaitza onak izateko prestatzen ari dira panorama global gero eta konplexuago batean eta txostenak tresna aparta eskaintzen du oinarriko auzi batzuei aurre egiteko.



### The new Social Europe Guide

Egilea: **Europa Batzordea**


Europa Sozialaren gida biurteko argitalpen bat da eta ikuspegi orokor bat ematen saiatzen da enplegua, gai sozialak eta inklusioaren gaian, EBeko politikako alor jakin batzuei buruz, irakurle interesatuei baina derrigor espezializatuak ez direnei. Auzi eta erronka nagusiak argitzen ditu, EBeko neurri politikoak eta tresnak azaltzen ditu eta EBeko estatu kideen praktika hobereenen adibideak eskaintzen ditu. Gainera, Kontseiluaren Lehendakaritzaz eta Europa Parlamentuaz iritziak aurkezten ditu. Sail honetako lehen liburuak EB enpleguaren gaian aurrean dituen erronka nagusiak lantzen ditu. Zehatz esateko, EBak aurkeztu dituen neurriak deskribatzen ditu desenpleguari aurka egin, gaitasun berriak garatu eta enplegua sortzeko. Gainera, enplegu-politikak burutzen duen papera azaltzen du Europa 2020 estrategiaren eta europar gobernantza ekonomikoaren testuinguruan. Azken kapituluak EBeko enplegu-politikaren ibilbide nagusiak laburbiltzen ditu geroari begira.



### Panorama de la educación. Indicadores de la OCDE 2011. INFORME ESPAÑOL

Egilea: **OCDE /ELGE**

"Hezkuntzaren panorama 2011k" eskaintzen duen informazioa aurreko urteen antzekoa da. Edizio honetako datuak 2008-09 urte akademikoari buruzkoak dira, oro har, eta ez gaurko egoerari buruzkoak, baina ELGEko herrialdeetako hezkuntza-sistemak eratzeko aukera ematearen balioa dute eta herrialde bakoitzean adierazle bilakaeraren analisisa erraztea. Datu horiek alde txikiak dituzte aurreko urteoketik, 2007-08 urtearekiko, bai Espainiarako eta bai ELGEntzat orokorrean.



### Global Entrepreneurship Monitor Comunidad Autónoma del País Vasco. Informe Ejecutivo 2010

Egilea: **Orkestra**

2010. urteari dagokion euskal ekintzaitza-tasa (Total Entrepreneurial Activity, TEA) azken zazpi urtetako mailarik baxuenean kokatzen da, euskal helduen biztanleria-tasa batekin,%2,5 bateko 0 eta 24 hilabete arteko enprekin, adierazle horrek tradizioz eman duen emaitzaren erdiarekin. Enpresa berriak, 3 eta 24 hilabete arteko bizitza dutenak berreskuratze arin bat ageri dute iazko urtearekiko, baina sortzen ari direnak, 0 eta 3 hilabete artekoak, berriro jaisten ari dira. Azterlan honetan egindako Estatuaren nazioarte- eta erregio-erkaketak jarduera ekintzailearen rankingean kokagune atzeratu batean ezartzen du EHAEa.

## Arkezpenak

Innobasqueren Slideshare kanalean eskura dauden aurkezpenen kontsulta  
[[slideshare.net/Innobasque](http://slideshare.net/Innobasque)]



**Euskal estrategia berrikuntzarantz** - Xabier Maidagan, Innobasque, 2011ko uztaila



**First Lego League Euskadi** - Innobasque, 2011ko iraila



**Enpresa-berrikuntza soziala** - Pablo Angulo eta Iker Atxa, Innobasque / Iranzu Sainz de Murieta eta Iñigo Benedicto, Sinnple, 2011ko iraila



**Establishing a new Basque Society through public-private collaboration** - Xabier Maidagan, Innobasque, 2011ko iraila



**Paziente kronikoen euskal erkidegoa** - Carolina Rubio, Innobasque, 2011ko uztaila

theWeek  
Astea la  
Semana **11**

100dik gora jarduera

# Zientzia bizitzeko

Parte hartu!

Más de 100 actividades para **vivir**  
**la Ciencia**

¡Participa!

Azaroa 7- 20 Noviembre

**Acto Inauguración de la Semana de la Ciencia, Tecnología e Innovación 2011** - Conferencia Manuel Toharia - 7 de nov. - Gobierno Vasco / SPRI

**Oferta educativa para escolares** - Del 7 al 11 y del 14 al 18 de nov. - Cristina Enea • **Espectáculo: "Propiedades del CO2"** / **Talleres de ciencia / Sesiones de planetarium** - Del 7 al 11 de nov. - Eureka! Zientzia Museoa • **Bilbao Ecodesign Meeting 2011** - 9 de nov. - Ihobe • **Fun Serious Game** - 8 y 9 nov. - El Correo • **Carpas de la Ciencia (Bilbao, Vitoria y San Sebastian)** - Del 9 al 13 nov. - UPV-EHU • **Explorando el sistema nervioso / La noche de Talent House: Charlando con el Talento / Surf Innovation** - 8 / 9 y 16 de nov. - Fomento San Sebastian • **Energía e Industria: innovación y desarrollo tecnológico en el nuevo escenario energético** - 10 y 11 de nov. - Ente Vasco de la Energía e Instituto Vasco de Competitividad • **Congreso Internacional sobre aplicaciones realidad virtual, televisión 3d, estereoscopía** - 10 y 11 nov. - Tecnalia • **Jornadas de puertas abiertas en los Parques Tecnológicos de Bizkaia, Alava y Gipuzkoa** - Domingo 13 nov. - Red de Parques Tecnológicos • **LandAREA. Exposición / Talleres / Conferencia** - 14 / 16 y 18 de nov. - Cristina Enea • **Instituto Vasco de Investigación Sanitaria (O-Iker): facilitando la I+D+i vasca** - 15 de nov. - Bioef • **Business Global Conference BGC** - 16 nov. - Gobierno Vasco / SPRI • **Presentación de Metaposta para pymes** - 15, 16 y 17 nov. - Metaposta • **TEKNOSKOPIOA concurso de proyectos** - Desde 1 de nov. - Elhuyar • **Un minuto para la innovación** - 22 de nov. - Innobasque



.... y mucho más en [www.astealasemana.org](http://www.astealasemana.org)





Innobasque, Berrikuntzako Euskal Agentzia, irabazteko asmorik gabeko erakunde pribatua da. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragileek, enpresa pribatuek, euskal instituzio publikoek, euskal enpresaburuen eta langileen ordezkari instituzionalek, eta berrikuntzarekin zerikusia duten mota guztietako erakundeek eratua. Nola kapital publikoak (Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Arabako Foru Aldundia) hala pribatuak finantzatua da, bere 1.000 erakunde bazkide baino gehiagoren ekarpenen bitartez.

Innobasquek plataforma indartsu bat eta lankidetzaren sare bat eskaintzen du eragile horientzat guztientzat, haren bitartez euskal gizartean berrikuntza sustatu eta hedatzeko, enpresetan, euskal erakundeetan eta gizarte osoan eraldaketa-dinamikak sortzen lagunduko duten ekitaldiekin, Euskadiren irudia hedatuz gizarte berritzaile, eta I+G+b-aren gune aurreratu gisa.

Innobasquek esku hartzen du honako administrazio-kontseilu eta organo zuzendarietan: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko (ZTBES); administrazio-kontseilua eta organo zuzendarietan The Basque Center on Cognition, Brain and Language (BCBL), The Basque Center for Applied Mathematics (BCAM), Euskalit, Ikerbasque, Orkestra (Lehiakortasuneko Euskal Institutua) Fundación Loyola Media Berrikuntza, Iñaki Goenaga Zentro Teknologikoen Fundazioa, IK4, LeiBerri, Gipuzkoa 2020, Lehendakari Batzorde Aholkularia, Langune, eta b20 (ILSI, Institute for Large Scale Innovation, San Francisco). Guillermo Ulacia da Innobasqueren lehendakaria 2009az geroztik.